


"Txakurra gura duenak ondo pentsatu behar du zein txakur mota egokitzen den bere bizimodura"



Erreportajea • Aitziber Agirre albaitaria Larrinagatzuko Neberondo txakurren egoitzako arduraduna da. Txakurra zaintzen die momenturen batean arrazoi bategaitik edo besteagaitik animalia zaintzeko aukerarik ez duten herritarrei. Erreportaje honetan, Durangaldean txakurrek duten presentzia aztertu dugu, TOKIKOMek eta EITBk elkarlanean egindako Saretzen egitasmoaren markoan. • **2-4**



Berrizko Amaraune lasterketa jokatu da zapatu honetan

Kirola • Amarauneraren 3. aldia nobedadeekin dator. Bate-tik, Etiketa Berdea egitasmoa batu da, eta, bestetik, lasterketa laburra ere antolatu dute aurten. • **27**

Berrizko eta Apatako jaiaren gehigarria



Berrizko eta Apatako jaiak datorren aste amaieran hasiko dira

Gehigarria • Apatan ekainaren 27an hasiko dira jaiak, Buztenikerak taldearen pregoiagaz. Berrizen Iremiñek botako du txupinazoa, ekainaren 28an. • **13-19**



Zornotzako kaleak musikarien topagune bihurtuko dira Haizetara lehiaketaren 17. edizioagaz

Zornotza • Gaurtik hasita eta domekara bitartean, Haizetara kaleko musikaren jaialdia egingo dute. Nazioarteko bederatziko bandek launa kontzertu emango dituzte Zornotzako kaleetan. Talderik onenak 15.000 euroko saria irabaziko du, musikaririk onenak 1.000 eurokoa, eta publikoaren saria daramanak 4.000 euro jasoko ditu. • **8**

Ume baino txakur gehiago dago Durangaldean

TOKIKOMeko hedabideek, tartean ANBOTOk, eta EITBk maskotei buruzko datuak aletu dituzte



Txakurrak Durangoko Neberondo egoitzan.

TXAKURRAK • EKAITZ HERRERA

Horixe diote datu estatistikoek. Ume baino txakur gehiago dago Durangaldean. Eskualdeko luze zabalean, 11.429 dira hamabost urtetik beherako biztanleak, baina txakurrak gainera daude; 13.020 dira. Eta errealitate hori eskualdeko herri bakoitzean aztertuta, joera berdinsua aurkituko dugu. Honako hau TOKIKOM tokiko hedabideen federazioak eta EITBk elkarlanean egindako Saretzen egitasmoaren emaitza da. Datu hauek guztiak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrekoak dira, 2024ko maiatzekoak.

Berrizen, esate baterako, umeak 636 dira, eta bertako txakurren kopurua 886 da. Zornotzara jotzen badugu, hamabost urtetik beherako biztanleak 2.819 direla ikusiko dugu. Txakurrak, oster, 3.283 dira. Eta Izurtza aldera mugituta ere, antzerako argazkia ikusiko dugu. Hamabost urtetik beherako biztanleak 34 dira han. Txakurren kopurua, oster, halako hiru baino gehiago da, 127 dira eta. Joera hori ia eskualdeko udalerririk guztietan islatzen da, Durangon izan ezik. Eskualdeko herri nagusia da salbuespena. Durangon 4.045 dira hamabost urtetik beherako bizilagunak, eta 3.051 txakurrak.

Datuak era sinplifikatuagoan eskaintzeko, umeen eta txakurren arteko erlazioa aztertu dezakegu. Hau da, zenbat txakur dago ume bakoitzeko? Aldea dago udalerririk batetik bestera. Izurtzan, adibidez, ume bakoitzeko ia lau txakur daude. Mallabian, hiru. Otxandion

bikoitza da kopurua, eta Abadiñon zein Berrizen txakur bat pasatxo dago ume bakoitzeko. Eta umeen kopuruetatik irtenda aztergaia biztanleria osora hedatuko bagenu? Modu horretan, oinarri txiki bat izango dugu udalerririk bakoitzeko soziologia ulertzeko. Izan ere, biztanlez txikiagoak diren herrietan, etxebizitza bloke handirik ez dagoen herrietan eta baserri munduari lotuago bizi direntan, presentzia handiagoa dute txakurrek. Garain eta Izurtzan, adibidez, ageri-agerian dago hori. Lehenengoan, lau txakur daude hamar biztanleko. Bigarrenen,

Izurtzan, txakur kopuruak hirukoitzu egiten du hamabost urtetik beherako neska-mutiko kopurua


oster, bost. Txanponaren beste aldean, herririk urbanoena dago. Durangon, adibidez, nabarmen txikiagoa da biztanleria-txakur erlazio hori. Hamar biztanleko txakur bat baino ez dago.




Azkenik, txakurren erabilerari buruzko datuak aipatu daitezke. Atal honetan, hiru multzo nagusi daude: txakurra konpainiarako maskota modura erabiltzea, artzaintzarako edo etxea zaintzeko erabiltzea, eta ehizarako. Azken atal bat ere badago, bestelakoak izenpean ipini duguna. Horretan, urriagoak diren erabilera motak jasotzen dira. Adibidez, itsuen txakur-gidak eta antzerakoak.

Ume baino txakur gehiago Durangaldean


Durango da salbuespena. Txakur baino ume gehiago dituen eskualdeko udalerririk bakarra da.

■ 15 urtetik beherako biztanleria ■ Txakur kopurua





Konpainia txakurra nagusi den arren, herri bakoitzak bere berezitasunak ditu



Txakurren askotariko erabilera herririk herri.

TXAKURRAK • E.H.

Eskualdeko txakurren erabilera nagusia konpainiara bideratzen den arren, fokua herri bakoitzean ipinita berezitasun batzuk ikusten dira. Mallabian, adibidez, txakurren herena baino gehiago artzaintzarako edo etxea zaintzeko erabiltzen da. Mallabia da Durangaldean txakurra artzaintzarako edo zaintzarako gehien erabiltzen den udalerrria. Bestalde, Zaldibarko berezitasuna dago. Han ere konpainiarako txakurra nagusi den arren, Zaldibarko gehien ematen zaion Durangaldeko udalerrria. Eta, azkenik, Durangoko kasua dago. Herrien artean hiritarrena izanik, ehizarako zein artzaintzarako txakurren erabilera gainerako herrietan baino nabarmen txikiagoa da. Hemen konpainiara konpainiara da nagusi.

TXAKURRAK • EKAITZ HERRERA

Oporretara doazen herritarren txakurrak, zereginen bategaitik zainzarako tarterik ez duten herritarren txakurrak... Aitziber Agirre albaitariak txakurrak zaintzen dizkie momenturen batean arrazoi bategaitik edo besteagaitik animalia zaintzeko aukerarik ez duten herritarrei. Esan duenez, aurten "topera" dabil. Irailera arte ez dauka txakur gehiago zaintzeko lekurik.

Hamabost urtetik beherako ume baino txakur gehiago dago Durangaldean. Datuak harritzen zaitu?

Bai eta ez. Nik errealitate biak bizi ditut, eta ez dut bata bestea barik ulertzen. Txakurrak egundoko laguntza eskaintzen du. Txiki-txikitatik izan ditut txakurrak. Gogoan dut amak galdetzen zidala ea bakarrik joan behar nuen mendira. Ezetz esaten nion, txakurrak nindoala. Txakurrik barik noanean, zeozeren falta igartzen dut. Bestalde, iruditzen zait halako konfort egoera batera heldu garela. Badirudi jendeak ez duela ardurarik gura. Umeak exijentzia gehiago du txakur baten aldean.

Erosotasuna egon daiteke honen guztia atzean?

Txakurrak ordu batzuetako ardura eskatzen dizu. Paseatzera atera behar duzu, jaten eman behar diozu. Baina behin horiek egin da, nahikoa libre egon zaitezke. Ez dituzu behar umeak eskatzen dituen ordu guztiak. Eskolako ordutegiak direla, eskolatik kanpoko ekintzak, asteburuetak kirol partiduak... beste askatasun bat duzu zure lagunekin egoteko edo planak nahieran egiteko. Berdin-berdin lo egiteko. Nire iritziz, hor egon daitezke arrazoiak. Jendeak kontziente izan behar du txakurrak bere beharrezkoak dituela. Mundu guztiak ez du zertan txakurra eduki. Edozelan ere, txakurra gura baduzu, ondo pentsatu behar duzu zein txakur mota egokitzen den zure bizimodura eta zure etxera. Bestalde, iruditzen zait txakurrak humanizatzeko joera zabaltzen dela. Txakurrak elkarrizketa luzeak izatea, eta izarapean edo mantapean lo egitera ohitzea, adibidez, ez da oso zentzuzkoa. Pertsona

“Txakurrak bere beharrezkoak dituzte eta jendeak kontziente izan behar du horretaz”

Aitziber Agirre Abaitua (Berriz, 1977) Neberondo txakurren egoitzako arduraduna da. Hogei bat urte daramatza herritarren txakurrak zaintzen. Larrinagatxun dauka egoitza



batzuei ez zaie gustatzen hau entzutea, baina argi izan behar dugu txakurra animalia dela eta senaz baliatzen dela.

Hona txakurra uztera etortzen diren bezeroen artean igartzen dituzte hala-koak?

Hona datorren jende gehienaren bitartean, txakurra funtsezko elementua da. Badira ardura gutxiago bizi dutenak egoera, baina salbuespena dira. Normalean, hona datorren jendea oso ondo antolatuta egoten da. Gainera, udaren batean txakurra zaintzeko lekurik barik geratu denak hurrengo udan lehenago jotzen du gugana, berriro lekurik barik ez geratzeko.

Hogei urte daramatzazue txakurrak zaintzen. Igarri duzue gorakadarik lanean?

Txakur kopurua handia da eta ezin diegu denei arreta eman. Txakur kopurua igo egin dela hona datozen txakurretan igarri dut, eta baita kalean ere. Durangoko kaleetan bazabiltza, parkeetan txakurrak ikusiko dituzu umeak baino gehiago. Gainera, familia bakoitzean, txakur bat barik bi egon daitezke. Txakur bat edo bi izan, gauzak ez dira hainbeste aldatzen. Biak aterako dituzu, biei emango diezu jatenaldi berean. Baina ume bat ala bi izan, ardurak gehiago dira espontzialki.

Eta zelan datorkizue bertan dugun uda sasoi?

Bete-beterik gaude. Abuztuko egonaldiak, adibidez, orain hilabete eta erdi bete genituen. Abuztua zoramena izaten da. Eta uztaile ere antzera baten. Azken urteotan gorakada handia igarri dugu uztaile-rako egonaldietan. Orain ekainean gaude eta jadanik oporretan dauden txakurrak ditugu hemen.

Zelako zerbitzua eskaintzen diezue txakurrei?

Norbere txakurra gainerako txakurrekin solte egotea da hemen eskaintzen dugun aukera nagusietariko bat. Hemen egun osoko aktibitatea dute, eta txakurrek iga-

rri egiten dute hori. Nekatu egiten dira, fisikoki eta mentalki. Jende askok uste du txakurra makila jaurtitzeko eta arineketa batean ekartzeko jolas horretan nekatzen dela gehien, baina ez da horrela. Horrek antsietatea sortzen dio txakurrari. Usaimenak nekaratzen du benetan txakurra, eta hemen ingurune aproposa dute horretarako. Usaimenaren bitartez, txakurrak pinabururen bat edo makilaren bat topatuko du, beste txakurren batek ezkutaturikoa akaso, edo besteren batek aurretik gorderiko pilota bat edo dena delako zeozer.

Jende askok uste du txakurra makila jaurtitzeko eta ekartzeko jolas horretan nekatzen dela gehien, baina ez da egia. Horrek antsietatea sortzen dio txakurrari

Paseatzera ateratzen dituzue? Jaten ematen diezue?

Bai, jakina. Zerbitzu osoa eskaintzen dugu. Solte ibiltzen dira, Larrinagatxu edo San Andres aldera eramaten ditugu, eta jaten ere ematen diegu. Badira egunpasa egitera ekartzen dituzten txakurrak. Jabeek goizean ekarri eta arratsaldean eramaten dituzte. Eta gero badira egonaldia hemen egiten dutenak. Bakoitzak bere tokitxo izaten du jateko eta lo egiteko. Jolastu, denak elkarregaz jolasten dira. Jan eta lo, ostera, bakoitzak bere lekuan.

Zenbat txakur hartu ditzakezue hemen aldi berean?

64 txakurrentzako tokia daukagu, baina uda bueltako sasoiaren batean 100 txakur ere izan ditugu inoiz. Udak duen alde ona da jenderik gehiena kanpotik dabilela eta mendi inguru hauek guretzat direla.

Irudikatzen duzu txakurrik bako bizi-tzarik?

Ez. Txiki-txikitatik izan ditut. Gure seme-alabak txakur artean jaio dira eta esango nuke bizi osoan izango ditudala inguruan.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko ekainaren 21a
22. urtea - 984. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC ziurtagiria
Produktu hau
sosteniblerako
materialak
erabiltzeko
egiaztatuta
dela eta Biko Kudeatza
Ziurtagiriaren
bidez gure
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko eguratsaren kalitatea "ona" dela berretsi dute

Durangoko Udaleko eta Jaurlaritzako ordezkariak airearen kalitateaz informatzeko jardunaldia egin dute asteon

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko eguratsak kalitate parametro guztiak betetzen ditu. Horrela berretsi zuten, martitzenean, Durangoko Udaleko eta Jaurlaritzako ordezkariak airearen kalitateaz informatzeko egindako jardunaldi zabalean. Mireia Elkoroiribe alkateak berretsi zuen airearen kalitatea "ona" dela, eta airearen kalitatea hobetze aldera ipinitako karbono aktiboko iragazkiak "soluzio eraginkorra" izan direla. Gogorarazi zuen 2023an batez beste kontzentratutako ben-

tzeno-maila 1,12 mikrogramokoa zela unitate kubiko bakoitzeko (Europar Batasunak metro kubiko 5 mikrogramotan du ipinita gehienezko muga).

Aurrera begira udalak mugikortasun jasangarria lortzeko pausoak ematen jarraituko duela esan zuen alkateak. Eta gaineratu zuen kutsadura murrizteko disuasio-aparkalekuen erabilera sustatuko dutela. Era berean, iragarri zuen bidegorriaren 18 kilometro berri lizitatuko direla, eta oinezkoentzako guneak handitu.



Durangoko udaletxeko batzar aretoan egin zuten jardunaldiko irudi bat.

Durangerrek aurrekontuetarako egindako 39 ekarpenak ezagutarazi dituzte

DURANGO • AITZIBER BASAURI

2025eko aurrekontu parte hartzaileen barruan, durangerrek aurkezturiko 39 proposamenak ezagutarazi ditu udalak. Hiru multzotan sailkatu dituzte ekarpenak: Udalerria, Gazteria eta Adineko pertsonak. Proposamenen artean, kultur espazioak sortzea, oinezkoen guneak handitzea eta hiri-baratzak egokitzea daude.

Datozen hileetan, ekarpen horien bideragarritasuna aztertuko dute. Ezarritako irizpideak betetzen dituzten eta estimazio ekonomikoaren gehienezko kopurua gainditzen ez dutenak lehenetsiko dira. Ekarpenak irailaren 9tik 23ra bitartean egingo den herri bozketan aukeratu dituzte. Udalak 800.000 euro erabiliko ditu aurrekontu parte hartzaileetarako. 200.000 euro aurtengo proposamenak finantzatzeko izango dira. Gainerako 600.000 euroak 2025ean auzoetako proposamenak lotzeko izango dira, azaldu dutenez.

Durangoko Murueta Torre auzoan jai giroa nagusituko da zapatuan

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Murueta Torre auzoan jai giroa izango da nagusi zapatuan. Bertako jaiak ospatzeko, egun osoko egitaraua prestatu dute, eta urteroko tradizio bihurtu den paella txapelketak ez du hutsik egingo.

Musikagaz alaituriko kalejiragaz hasiko da eguna, 11:00etan. Eta, jarraian, zurezko jolasak eta moztorro tailerrak

Eguerdian herri kirolak egongo dira, eta arratsaldean apar festa eta dantzaldia

egongo dira; aurpegia margoitzeko aukera ere egongo da. 12:00etan herri kirolen saioa egongo da. Eta ordurako dena prest izan beharko dute paella txapelketan parte hartu gura dutenek. Arratsaldean apar festa eta dantzaldia egongo dira, eta gauean Akustikover taldeak joko du.



Durangoko Bizipark aparkalekurako araudia osatzeko kontsulta hasi dute

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Udalak aurretiako kontsulta prozesua hasi du BiziPark bizikletentzako aparkaleku zerbitzuaren funtzionamendurako araudia prestatzen hasi aurretik. Ekainaren 27ra arte iraungo du eta www.durango.eus atariaren bitartez bideratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiagaz lankidetzan diseinatu dute Durangoko Udalak berak kudeatuko duen BiziPark proiektua, "hainbat garraiobideren erabilera konbinatua sustatzeko" helburuagaz. Kontsulta publikoan parte hartzera deitu ditu herritarrak, egindako ekarpenak "funtsezkoak" direlako "zerbitzuaren erabilzaileen premiak islatuko dituen araudia egiteko", azaldu dutenez.

21.22.23 EKAINA

Haizetara 2024

XVII. FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

NEW TOCADOS Madrid	ORCHESTRE NATIONAL DU JAHINER France
TENAMPA BRASS BAND Mexico	THE HUGS France
BRAZZMATAZZ Belgium	LA TROCAMBA MATANUSCA Valencia
PIXIE & DIXIE BAND Valladolid / Palencia	THE TAMARROS Italia
LLAREGGUB BRASS BAND Wales (UK)	

www.haizetara.eus

Axpen San Joan jaietan murgilduko dira ekainaren 21etik 24ra, askotariko ekimenekin

Haize-arrosak, Andoni Oilokiegik eta DJ Bullek kontzertua emango dute bariku iluntzean. Hurrengo egunean, zapatuan, mozorrotzeko aurtengo gaia 'Turistak Atxondon' izango da

ATXONDO • JOSEBA DERTEANO

Axpen San Joan jaiak hasiko dituzte gaur. 20:00etan txopoa jasoko dute eta 21:30etik aurrera Haize-arrosak, Andoni Oilokiegik eta DJ Bullek kontzertua emango dute. Zapatuan ere badago dantzarako tartea. Esaterako,

askotariko musika tresnak batzen dituen Ein GO taldeagaz, 19:00etan. Afalostean, 22:00etan, doinu mexikarrak izango dira nagusi, Los Tenampas mariatxi talde nafarragaz. Gainera, zapatua, mozorrotzeko eguna izango da. 'Turistak Axpen' da aurtengo gaia.

Zapatuko beste osagai bi tortilla eta bakailao txapelketak dira. Domekan, San Joan egunaren bezperan, San Joan sua egingo dute, Elizaldeko landan, 21:00etan. Egun horretan, umeentzako abentura parke bat ere egongo da: Zintzilik Emozioen Laborategia.



Domeka iluntzean San Joan sua egingo dute Elizaldeko landan.

Bertso afariagaz hasiko dituzte, gaur, Mallabiko Goita auzoko jaiak

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Goita auzoan San Joan jaiak hasiko dituzte gaur, 19:00etan, txapligua botata. Ondoren, bertsoa afaria egongo da Sustrai Colina eta Unai Agirre bertsolariekin, trikitilariak lagunduta.

Zapatuan umeentzako jolasekin hasiko dute arratsaldean, eta 20:30ean patata tortilla lehiaketari ekingo diote. 22:00etatik aurrera musika izango da nagusi Ai Ama taldeagaz eta Gorka eta Mikel trikitilarien erromeriagaz.

Domekan, Gazte Alai dantza taldeak emanaldia egingo du meza ostean. Arratsaldean, 18:30ean, Goizeder Abendibarrek eta Jon Gisasolak harri jasotzen eta Ioritz Gisasolak pentatloian herri kirol saioa egingo dute. Iluntzean San Joan sua piztuko dute. Azkenik, astelehenean, luntxa emango dute 19:00etako meza ostean, eta errifaren zozketa ere egingo dute.

Mañariko jaien aurkezpena egingo dute Sanjoanetako ospakizunean

MAÑARIA • J.D.

Durangaldeko beste herri askotan legez, Mañarian ere ospatuko dituzte sanjoanak. Domekan, San Joan bezperan, hainbat ekimen egongo da iluntzean San Joan sua piztu aurretik. 17:00etan harriak margotuko dituzte. Nork bere harria eraman behar duela

2024ko jaiak aurkeztu aurretik, 2023ko jaietako bideo emanaldia egingo dute Mañarian

zehaztu dute udaletik. Ondoren, 18:30ean, iazko jaietako bideo emanaldia egingo dute lehenengo, eta 2024ko jaien aurkezpena gero. Beraz, abuztuko jaietako buruzko hainbat xehetasun jakiteko aukera egongo da. Azkenik, 19:00etan, bertaratzen direnen artean zuzaitzak landatuko dituzte.

Otxandion gazteek alokairuan hartzeko hamar etxebizitzak 2025ean eraikiko dituzte

Lanak aurten lizitatuko direla jakinarazi dio Jaurlaritzak udalari



Zine Zaharreko orubea.

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Jaurlaritzak aurten lizitatuko ditu zine zaharreko orubean egingo dituzten hamar etxebizitza dotazional eraikitzeko lanak. Datorren urtean hasiko dira etxebizitzak eraikitzen, eta gazteei eskainiko zaizkie alokairuan.

Horrela jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzak Otxandioko Udalari. Erakunde biek zine zaharreko orubearen lagapen hitzarmena sinatu berri dute. Etxebizitza horiek Etxebizitza Sailak eraikiko dituela jaso dute hitzarmenean, eta eraikinaren beheko solairua

udalaren esku geratuko dela, etorkizunean anbulatorio berria eraikitzeko bertan.

Udalak Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektua egin du, eta horren barruan eraikiko dituzte gazteentzako etxebizitzak. Egoitz Garmendia alkateak adierazi du lanak gura baino askoz ere gehiago atzeratu direla. Horrek inguruaren urbanizazio lanak baldintzatzen ditu, "ez duelako zentzurik lehenengo urbanizazio lanak egitea, eta gero etxeak", gaineratu duenez. Proiektuak Gaztetxearen aurreko zonaldearen eta Udaletxe eta Sorginestrada kaleen hiritartzea, eta etorkizuneko anbulatorio berria egitea ere barne hartzen du.

Elixosten urbanizazioa

Udalak 115.000 euro ditu lotuta aurtengo aurrekontuan Elixoste inguruko urbanizazio lanen lehenengo faserako —Sorginestrada eta zine zaharreko orubetik Ospital kaleraino—. Aurten eraberrituko dute inguru hori. Hurrengo faseak Etxebizitza Sailak etxebizitza blokeak eraikitzen amaitzen ditueneko utziko ditu udalak. Anbulatorio berriaren proiektuari alokairurako etxe blokea eta Elixosteko urbanizazioa amaitu eta gero ekingo diote.

Bertsoa saioa, musika, antzerkia eta gehiago Izurtzako lehenengo kultur astean

Domekan 'Balkoitik Plazara' bertso saioa izango da

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak kultur astearen lehenengo aldia antolatu du eta hainbat ekimen izango da barietatez domekara. Gaur, 19:00etan, Asier Jorge durangarrak *Barne bidaia: Bizikleta espedizioa*, Durangotik Lurmutur Hirira, Izurtzatik pasatuz izeneko diaporama saioa emango du erabilera anitzeko eraikinean. Zapatuan, 19:30ean, antzerkiak hartuko du plaza, Ganso&Cia antzerki konpainiaren *Panoli Kabareta* familia antzezlanagaz. Dome-

kan, 13:30ean, 'Balkoitik Plazara' abestuko dute hiru bertsolariak: Aitor Etxebarriazarraga gernikarrak, Iruri Altzerreka garaitarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarrak. Itxaro Juaristi arituko da gai jartzaile lanetan. Arratsaldean Santo Tomas parkera lekualdatuko da jaiak, 19:30ean. Tradizioari eutsiz, San Joan sua piztuko dute han, hainbat musikariek lagunduta: Ji-Kunak txalaparta taldeak, Etxe berriztarrak eta Seiren talde zornotzarrak.



Ganso&Cia taldeak 'Panoli Cabareta' antzezlanaz plazaratuko du.



eta askoz gehiago!

Bisitatu

garaia.gerediaga.eu:



GARAIA:

Durangaldeko Historia eta Memoriarako Ikus-entzunezkoen bilduma

Durangaldeko historiari eta
ondareari buruzko edozein
dokumentalek edo
ikus-entzunezkoek izango
du lekua Garaian

Haizetara jaialdiak agertoki erraldoi bihurtuko ditu Zornotzako kale eta txokoak

Gaurtik hasita, nazioarteko bederatzi talde Haizetara jaialdian lehiatuko dira 15.000 euroko sariaren bila; musikaririk onenaren saria eta publikoaren saria ere banatuko dituzte; domeka eguerdian egingo dute sari banaketa ekitaldia

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Gaurtik hasita eta domekara arte, musika ez da isilduko Zornotzan. Hain zuzen ere, Haizetara jaialdia egingo dute bertan. Nazioarteko bederatzi talde lehiatuko dira talderik onenaren sariaren bila (15.000 euro); horien artean, Tenampa Brass Band (Mexiko), Orchestre National du Jahiner (Frantzia), Brazzmatz (Belgika), UGS Brass Band (Frantzia) eta Llarregub Brass Band. Hau ez da banatuko den

Nazioarteko bederatzi talde lehiatuko dira talderik onenaren sariaren bila



lazko Haizetara jaialdiaren irudia.

sari bakarria izango; musikaririk onenak 1.000 euro jasoko ditu, eta publikoaren saria (4.000 euro) ere banatuko dute domekan egingo duten sari banaketa ekitaldian. Internet bidezko bozketan www.haizetara.eus webgunean egin ahal izango da, barikuan eta zapatuan. Aurtengoa hamazazpigarren edizioa izango da, eta, beraz, Zornotzan guztiz errotuta

dagoen ekitaldia da. Ia-ia udaren hasiera markatzen du, San Joan jaiagaz batera da eta. "Ez da sa-soirik onena kultur ekitaldiak egiteko, baina Haizetarak musika jaialdi bat baino gehiago dela erakutsi du urteotan. Kultura eta estilo desberdinen topagune bihurtzen du Zornotza eta horregaitik da inportantea duen ga-

rrantzia aitortzea. Beste urte batez, musikaz eta giro onez beteko ditu Zornotzako kaleak", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Bederatzi taldeetarik bakoitzak lau kontzertu emango ditu hiru egunetan, herriko zenbait gunetan, eta, beraz, zornotzarrek denen doinuez gozatzeko aukera izango dute.

Lehiatik kanpora

Nazioarteko taldeena ez ezik, Euskal Herriko txaranga eta fanfarreen topagunea ere bada Haizetara. Horrela, Sugarri, Klean, Sama Siku eta Joselontxos taldeak ere arituko dira Zornotzako kaleak girotzen; Zornotzako Musika Bandak ere parte hartuko du.

Zornotzako Udalak 250 ekarpen jaso ditu 'Arkalaz, Herrigintzan bat' ekimenerako

ZORNOTZA • A. M.

Zornotzako Udalak *Arkalaz, Herrigintzan bat* ekimena ipini zuen martxan, 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien beharrak ezagutzeko helburuagaz. Udalak 250 ekarpen jaso ditu. "Beharrianen ikuspegi integrala izate aldera, gurasoek eta udalerriko haur eta gazteek hainbat gairen inguruan duten iritzia gertutik ezagutu gura dugu, eta, horretarako, galde-tegi bat bidali diegu, familia zornotzarren ongizatea hobetzen jarraitzeko eta egungo zerbitzuak, jarduerak eta azpiegiturak udalerriko familien errealitatera, beharretara eta lehenasunetara egokitzen jarraitzeko", azaldu dute udal iturriek. Horrez gainera, ekarpenak "banan-banan" aztertze konpromisoa hartu du udalak. "Familia zornotzarrak zaintzea lehenasun bat da gobernu talde honentzat, eta herritarrek politika publikoen diseinuan parte hartzea funtsezkoa da elkarrengatik herritarren beharretara egokituriko etorkizun inklusiboago baterantz aurrera egin dezagun", azpimarratu du Ainhoa Salterain alkateak. Familiei zuzenduriko galdetegian, aisialdiari, zerbitzuei eta azpiegiturari buruz galdetu diete.

Elorrioko Udalak olan bati egindako eraso arrazista eta matxista salatu du

Gorrito delitua izan daitekeela eta, salaketa ipini dute



Olan frontoiko horman ipini eta egun batzuetara, norbaitek kendu egin zuen.

ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Zatoz Gurekin programan landuriko horma irudi bati eraso egin diote. Irudia herriko emakumeek elkarlanean egindako olana da, mundu zabaleko kulturen garrantzia nabarmentzeko eta emakumeen presentzia azpimarratzeko helburuz egindakoa. Artelana joan zen egunean zintzilikatu zuten, frontoiaren kanpoaldeko hormetariko batean. Baina asteon olana bere lekutik erazuta eta aldameneko eraikin osagarri baten teilatuan agertu da botata. Eguazten goizean, hain zuzen ere. Udalak gogor salatu du ekintza bandaliko eta ofiziozko salaketa ipini du erasoan gorrito delitua egon daitekeelakoan. Gainera, eraso arrazistak eta matxistak ez dituela onartzen berretsi du, eta aitortza egin die Zatoz Gurekin proiektuan parte hartzen duten emakumeei. Bertan, gaztelania ikasteko eta hainbat herrialde-tatik Elorriora bizitzera joandako emakumeen bizitza hobetzeko proiektuak lantzen dituzte.

Berrizko Udal Kontseiluaren batzarra, ekainaren 25ean

Besteak beste, elkartasun jardunaldien balorazioa egingo dute; 18:30ean izango da batzarra, Nagusien Etxean

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udal Kontseiluak beste batzar bat egingo du ekainaren 25ean. Nagusien Etxean izango da, 18:30ean. Besteak beste, elkartasun jaialdiaren balorazioa egin eta urte amaierara arteko plangintza jorratuko dute. Udal Kontseiluan norbanakoak eta

herriko elkarteak batzen dira, gizarte arloko errelitateari buruz eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko. Gaur egun egonkortuta dagoen hainbat jarduera antolatzen du Udal Kontseiluak; Kultur arteko jaiak eta Saharako elkartasun karabana, adibidez.



Nagusien Etxean izango da batzarra.

Ostalaritza gida

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Etorri eta eraman edonon jateko gure sukaldean prestatutako platerak. Kuxkuxeatu gure instagramean menua, karta eta nobedade guztiak.

 @basa.durango



DURANGO

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zeilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna

 @xiberutaberna

ZORNOTZA

PROPI



Larrea, 5
Tel.: 611 107 004

Etxeko eguneko menua, asteburuko menua eta oilaskoak.

 @propijatetxea

DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)


- Eguneko menua 19,90 €
- Dastatzeko menua 45,00 €
- Karta

Gauean asteazkenetik larunbatera (20:00-22:30)

- Mokadu karta

TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 HOTEL Olajauregi

 @hotel_olajauregi_jatetxea



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa


EKAINEN ZOKKETAK




Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Hotel Balneario Areatzan bi lagunentzako gaua, gosaria eta zirkuitu termala.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zokketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zokketetan!



Nazioarteko metal musikaren doinurik zorrotzenekin gozatzeko hitzordua

Abadiñoako institutuko instalazioek Kobalive metal jaialdiaren hirugarren edizioa hartuko dute asteburuan. Gaur eta bihar nazioarteko talde ugari taularatuko da bertan



Primal Fear talde alemanaren kontzertua iazko edizioan.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Dena (edo ia dena) prest dago metal musikaren dezibeliorik gorgarrienek Abadiñoako institutuko instalazioak hartzeko. Kobalive jaialdia bere hirugarren ediziora helduko da asteburu honetan, orain arteko ibilbidean salto kualitatiboa emanda. "Salto bat emateko une aproposa zela iritzi genion. Jaialdiak handitze bat behar zuen", adierazi du Sergio Correa Kobaliveko kideak. Egun bakarreko jaialdia barrik, aurtengoa egun bikoia izango da. Eta nazioartetik ailegaturiko taldeek aurreko edizioetan baino presentzia nabarmenagoa izango dute. Horien artean daude Dark Tranquillity talde suediarra, Skeleton (Italia), Bloodred Hourglass (Finlandia), Crisix (Herrialde Katalanak), Darkembrace (Galizia) eta

Ad Eternumek hasiko du festibala, gaur, 20:00etan. Jai eremua 18:30ean zabalduko dute

Metallium (Alemania). Azken talde honen musika jarduna etenda egon da azken hamarkada pasatxoan, baina taldea osterare batu da egurrean hasteko. Abadiñon bertan egingo dute itzulera birako lehenengo geldiduna. Gainerakoan, Rise to Fall talde bilbotarra, Ad Eternum talde santurtziarra eta eskualde honetakoak diren metal talde bi batuko dira eszenara: Sugo (Elorrio) eta Alerta (Durango-Abadiño). Azken hauek ere badute euren anekdotatxoak. Izan ere, Alerta-k kideek eszenatoki izango duten

hezkuntza zentro berean eman zuten haien lehenengotariko kontzertua, orain hamarkada bi baino gehiago, taldea oraindino Alerta Roja deitzen zenean.

Metal festibalaren lehenengo atala gaur egingo da. Jai eremuko atak 18:30ean zabalduko dituzte. Oholtzara igoko den lehenengo taldea Ad Eternum izango da (20:00). Biharko kontzertu sorta Alertak hasiko du (17:00). Ateak lehenago zabalduko dituzte, 16:30ean. Jai eremuan jatekoa, edaria eta kafea zerbitzatuko dituzte. Egitarauari buruzko informazio osoa Kobaliveren web atarian kontsultatu daiteke.

Mikel Urrutia alkateak jaialdiko antolatzaileak goraiatu eta herritarrek bertara joatera animatu ditu.

Traña-Matienako auzotarren beste mobilizazio bat pediatria zerbitzua berrezartzea eskatzeko

Ekainean egin duten hirugarren mobilizazioa da. Auzotarrak osasun zentroaren aurreko plazan batu ziren eguaztenean

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Ekaineko eguazten guztietan batuko zirela aurreratu zuten, eta emandako berba betetzen dabilta. Traña-Matienako bizilagunek beste mobilizazio bat egin zuten, eguaztenean, auzoko pediatria zerbitzua berrezartzea eskatzeko; hirugarrena ekaina hasi zenetik.

Auzotarrak pediatrarik barik daude azarotik, Osakidetzak ordu arte egondako pediatra postua erretiratu zuenetik. Bizilagunen iritziz, "onartezina" da auzoan pediatrarik ez egotea.



Eguazteneko mobilizazioa.

Iurretarek 'Colacao' ibilbidea egokitzeko proiektua babestu dute

Iurretako 2024ko aurrekontu parte hartzaileetan 193 lagunek eman dute botoa. Udalak aukeraturiko sei proiekturen artean hiru hautatu behar izan dituzte



Iturburutik hasi eta Garaizar eta Amatza auzoetatik doa ibilbidea

IURRETA • AITZIBER BASAURI

'Colacao' itzulia egokitzea. Horretarako batu du botorik gehien Iurretako 2024ko aurrekontu parte hartzaileetan: Iturburutik irten eta Garaizar eta Amatza auzoetatik doa ibilbidea egokitzeak 117 boto jaso ditu. Horren atzetik, herrian paperontziak ipintzea eskatu dute iurretarek, 104 botogaz. Atzerago geratu dira Amilburun hiri-altzariak ipintzea eta txakurrentzako parkea egokitzea. Iurretan errolaturiko 16 urtetik gorako herritarrek izan dute botoa emateko aukera.

Aurten, 193 lagunek parte hartu dute aurrekontu parte hartzaileen bozketan fasean. Martxoan zehar jasoriko 302 proposamenduetatik —orduan 154 lagunek parte hartu zuten— Iurretako Udalak zazpi proiektu aukeratu zituen, eta iurretarek hiru bozkatu behar izan dituzte horien artean, maiatzaren 13tik 26ra bitartean. 'Colacao' itzulia egokitzeak 50.000 euroko inbertsioa eskatuko du. Iurretako Udalak diru kopuru hori izan du gordeta aurrekontu parte hartzaileetarako.



Iñaki Irigoien (erdian) egilea ekitaldian parte hartutako hainbat herritarrekin.

'Gorulari dantzak' aldizkaria aurkeztu dute Iurretan

Iñaki Irigoien ikertzaile bilbotarrak Gorulari izenagaz ezagutzen diren hiru dantzen historia batu du aldizkarian

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Gorulari izenagaz ezagutzen diren dantzen — Zintadantza, Arku-dantza eta 1886an prestatutako Linuaren Estampa— historia batzen duen *Gorulari dantzak* aldizkaria aurkeztu dute Iurretan. Galduta egon eta gero, 1886ko Euskal Jaian berreskuratu zituzten, eta neskek eta mutilek dantzatzeko

moldatu. Gerraostean berriro galdu ziren arren, 1973an Iurretako dantzariak berreskuratu ondoren Iurretako dantza lez onartuta dago. Ekitaldian Iñaki Irigoien ikertzailea, Mikel Deuna taldeko dantzariak, Anderebideko kideak, eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko eta Gerediagako ordezkariak egon ziren.



Irabazleak jaitsierako une batean. RAFA IRAETA

Aritz Astobieta eta Ibai Alba garaile Zaldibarko goitibehera jaitsieran

Goieritik Solozabal baserrirainoko jaitsiera 54 segundoan eginda, errekor berria ezarri zuten

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Aldatsa goitibehera taldeko kideak pozik daude joan zen domekako probak izandako harreagaraz. Proban 38 bat goitibehera lehiatu ziren. Denborarik onena Aritz Astobieta pilotuak eta Ibai Alba kopilotuak osaturiko bikoteak lortu zuen. Busturialdeko kide biek 54 segundo behar izan zituzten Goieritik

Solozabalerainoko bidea egiteko. Denbora horregaz, orain arteko errekorra hobetzea lortu zuten (orain artekoa 55 segundoan zegoen). Etxekoen artean, Joseba Herreros nabarmendu zen. Aldatsa goitibehera taldeko kideak 58 segundo behar izan zituen jaitsiera burutzeko. Kategoria europarrean, bera izan zen garaile.



Paella txapelketa eta trikitilariak Garain, Momoitioko sanjoanetan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak eta Jai Batzordeak egitaraua prestatu dute Momoitioko San Joan jaiak ospatzeko. Ekitaldiak bihar hasiko dituzte, herri afariagaz eta Laja II.a eta Lutxurdio trikitilarien saioagaz (21:00). Domekan mezagaz hasiko dute eguna (11:00) eta dantzariak zein igel-jokoa izango dituzte ondoren. 14:30ean oilasko paella txapelketa egingo dute, eta 20:00etan Donien Atxa jasotzeko ekitaldia eta sua. Ospakizunak astelehenean amaituko dituzte, mezagaz eta ondorengo hamaiketakoagaz (11:30).

Garaiko herritar talde bat kalera irten da Berrizko anbulatorioko "murrizketak" salatzen

"Kezkaz" bizi dute egoera. Zerbitzua "geroago eta txarragoa" dela diote. Eguazten eguerdian elkarretaratzea egin zuten

GARAI • EKAITZ HERRERA

Berriztarrek orain aste batzuk egin zuten eran, orain garaitarrak irten dira protestara. Gaur egun, Berrizko kontsultategian mediku bakarra dago zerbitzua eskaintzen; berez, hiru egon beharko liriteke. Eta egoera horrek, berriztarrei ez ezik, Garaiko bizilagunei ere eragiten die, Berrizkoa delako Osakidetzak haientzat esleituta

daukan anbulatorioa. Hori dela eta, garaitar talde batek protesta egin zuen eguazten eguerdian herriko plazan. Eurretari batek ANBOTOrri adierazi dionez, herritarrek "kezkaz" bizi dute egoera. "Zerbitzua geroago eta txarragoa" dela diote. "Bada garaitarren bat medikuarenera kontsulta eske joan eta urrirako ipini diotena ordua", kritikatu dute.



Eguazten eguerdian egin zuten elkarretaratzea.



Maite Blanco Urrejola elorriarraren kartelak iragarriko ditu Ferixa Nausikoak

Blancok 500 euro irabazi ditu. Ferixa Nausikoak abuztuaren 31tik irailaren 8ra izango dira



Maite Blanco eta kartel irabazlea.

ELORRIO • ARITZ MALDONADO

Aurtengo Ferixa Nausiko jaiak Maite Blanco Urrejola elorriarraren kartelak iragarriko ditu; *Jaietako eromena: murgildu gozamenaren iturrian* izena ipini dio lanari. "Betidanik gustatu izan zait Iturri-zoro iturria. Bertatik ura aterako balitz legez, jaietako eta Elorriko elementuak txertatu ditut eta badirudi epaimahaikoei gustatu egin zaiela", azaldu du irabazlea. Guztira, 21 proposamen aurkeztu dituzte lehiaketara, inoiz baino kartel proposamen gehiago Elo-

rriko Udalaren esanetan. Horrez gainera, azpimarratu dute 752 lagunek eman dutela botoa, 456 lagunek webgunetik, eta 296 herritarrek Iturri kultur etxera bertaratuta.

Udal ordezkariak, diseinatzaile profesional batek eta ANBOTO komunikabideetako kide batek osatu dute epaimahaia, eta, bestek beste, alderdi tekniko eta berdintasun irizpideak kontuan hartu dituzte. Blancoren proposamenak 81 herritarren botoa jaso du eta 500 euroko saria eskuratuko du.

Politikan

Markel Larruskain
Narbaiza
EH-Bildu



Bikain

Durango dena doa bikain, Mañariko kanteretako porlana bezala, Bikain.

Pena daukat herri ereduaren arteko eztabaidarik ez dagoelako Durango, eta, zoritxarrez, ez dut uste eztabaida hori pizteko ahalmena izango duenik zutabe honek, oxala.

Eraikinak egin, bota, egin, bota, egin... zirkulu biziosan sartuta egon den herria da Durango, eta, antza denez, ez gara hortik atera. Azken adibide batekin bueltaka nabil asteen, Eguzkitza goiena izeneko zonaldean, Tabiratik gora, mendirantz bidean, etxeak egitea aurreikusita dago, hor ere bai. Ez nago ados eta EH Bildutik ere ez gaude ados. Durangarron kontrolatik kanpoko hazkuntza mugagabea ez dugu uste hirigintza eredu egoki baterako bidea denik eta ez dugu uste denontzako bizi kalitate ona ekarriko duenik proiektu honek, baina kontrako iritziak ere zilegi dira, noski.

Horregatik, zelako Durango nahi dugun publikoki eztabaidatzea eta posizioak argi azaltzea ezinbestekoa iruditzen zait. Argudio ezberdinak entzun, eta bertan bizi garenok gure herria nolako izango den pentsatzeko eta erabakitzeak aukera izan behar dugu. Honetarako informazioa eta parte hartzeak espazioak izatea ezinbestekoa da, eta hau administrazio publikoak bermatu behar du; kasu honetan, Durangoko Udalak.

Orain ari gara hurrengo hamarkadetan izango dugun herria zelakoa izango den erabakitzen. Zenbat etxe, zelakoak, non, norentzat... Durango fisikoki nolako izango den eta bertan zelan biziko garen pentsatu behar dugu eta hau ezin da bulego itxietan egin. Bestelako eredu baten alde gaudenon parte hartzea eta ekarpena ezinbestekoak dira momentu honetan; bestela, herritarren ongizatean baino gehiago, beste interes batzuen arabera egingo dira planak, eta garapenari Bikain esango diogu.

Durungaldea asteen

Atxondoko igerilekuak gaur hasiko du udako denboraldia, barikuagaz

Atxondo | Instalazioak gaur zabalduko ditu ateak, ekainaren 21eko barikuan, eta irailaren 1era arte egongo da zabalik. Orduetgia honako hau da: asteleheneratik domekara, 11:00etatik 20:00etara. Udalak hainbat lan egin du azpiegitura hobetzeko. Lanik nabarmenenak tabernan egin dituzte. Etxetresnak berritzeaz gainera, hormak eta elektrizitate sarea berritu dituzte.

Hamarkada bateko etena apurtuta, udal aldizkaria berreskuratu dute Zaldibarren

Zaldibar | Zaldibarko Udalak udalgintzari loturiko informazioa biltzen duen argitalpena kaleratu du, hamarkada batean halakorik publikatu barik egon eta gero. Erabakiari eskerrak, "herritarrei informazio zehatz eta eguneratua helarazteko tresna garrantzitsu bat berreskuratu" dutela adierazi du gobernu taldeak, "bide batez, aldizkaria aldiro-aldi eguneratzen eta kaleratzen joateko konpromisoa hartuta".

Durango historiaren eta kulturaren inguruko bisita gidatuak asteburuan

Durango | Udalak eta Gerediak antolatu dituzte bisitak. Ekainaren 22an, *Durango zuri beltzean* bisita gidatua egingo dute. Gaztelaniazko bisita 10:30ean hasiko da, eta euskarazkoa 12:30ean. Bestalde, ekainaren 23an, 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren aztarnak ezagutzeko aukera egongo da. Euskarazko bisita gidatua 10:30ean hasiko da. Gaztelaniazkoa, 12:30ean. Ibilbideak Kuruzesantutik hasiko dituzte.



San Frantziskoko klaratarren ordenako Sor Caridad Urzelay Enbizek 100 urte egin dituzte

San Frantziskoko klaratarren ordenako Sor Caridad Urzelay Enbizek 100 urte egin zituen joan zen eguaztenean, ekainak 19, eta Durango herriaren izenean zorionak ematera joan zitzaizkion Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea. Lore sorta bat eman zioten opari.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian

iragarki
laburrak
.eus

Hemen
eta online





Berrizko jaiak 2024

Ekainak 28, barikua

19:00 Pregoia eta txupinazoa, Iremiñe Dantza Taldeagaz, udaletxean.

Ondoren, jaietako KARTEL LEHIAKETAREN sari banaketa, udaletxean.
Urtero legez, SARDINA JANA.

20:00 DONIEN ATXA eta DANTZARI DANTZA entsegua. Elizondo plazan.

21:30 LUHARTZ erromeria. Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: EZTA ILEN, AGUR, LAS SEXPEARES, txosnagunean.

Ekainak 29, zapatua

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo plazan.

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA, German Aldekoa herriko txistularia zenaren omenez.

14:00 PAELLA LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

15:00 HERRI BAZKARIA. Ondoren, bingo musikala, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

18:00 MOZORROEN JAITSIERA. Gaia: zinea. Txosna batzordeak antolatuta.

18:30 OIHAN VEGA diskofesta. Elizondo plazan.

19:00 Herriko IGEL TXAPELKETA. Izen ematea 18:30 - 19:00.

20:00 DANTZARI DANTZA.

22:00 OIHAN VEGA diskofesta Elizondo plazan. Ondoren, DJ MARIA BLESSIVE.

23:00 Kontzertua: KOHATU, ZIBILITO RECORDS. Ondoren, DJ MARRAZO, txosnagunean.

Ekainak 30, domeka

11:30 Margo tailerra umeentzat, udaletxeko lorategian.

12:30 HERRI KIROLAK. Elizondo plazan.

14:00 XII. JOSE RAMON KORPION MEMORIALA BAKAILAOA PIL-PILEAN LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

16:00 TIRAGOMA TXAPELKETA, udaletxeko lorategian. Maila ezberdinak.

17:00 Musika tailerra umeentzat 'TRAKAMATRAKA'. Elizondo plazan.

18:30 BERTSO SAIOA, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

Ane Labaka, Araitz Katarain, Igor Elortza, Irune Basagoiti.
Gai jartzailea: Miren Amuriza.

22:00 'AIURRI' Aukeran Dantza Taldeagaz, eskolako patioan.

22:30 KARAOKEA, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

Uztailak 1, astelehena

12:00 TRIBIALA (12 urtetik gorakoentzat), udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 / 16:00-19:00

UMEENTZAKO PARKEA: Jumping, puzgarriak eta abar, Berrizburu kiroldegian.

16:00 Mutilen XIV. eta Mistoen V. FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK, Olakueta frontoian.

19:00 XAUKENA elektrotzaranga, Urtiaga plazan hasita. Ondoren, zumba. Txosna batzordeak antolatuta.

19:30 TROIA kale antzerkia Kamikaz kolektiboagaz. Eskolako goiko patioan.

22:00 LES TESTARUDES kontzertua, eskolako patioan.

Uztailak 2, martitzena (Santa Isabel eguna)

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean musika, kiroldegian.

18:00 DESANUDA. Dantza. Maitane Sarralde, eskolako patioan.

19:00 ZTANDAP! Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena.

Bakarriketa txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA. Elizondo plazan.

20:30 TORTILLA LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

21:30 'CARIBEFUNK' kontzertua, Elizondo plazan.

23:00 SU LAGUNKOIA. Su eta piroteknia erakustaldia, udaletxeko lorategian.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

PINTURA DEKORATIBOA ETA INDUSTRIALA

PINTURAS BERRIKOLOR

GAIZKA FERNANDEZ

699 009 050

GAIZKAFER78@GMAIL.COM

@gaizka_berrikolor

keinu

OPTOMETRIA ZENTROA

PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptomietriazentroa.com

pedrojuanena

JATETXE-ERRETEGIA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Estanko Etxebarria

Iturriza 14, Berriz
Tel: 94 682 79 58

CERAMICAS

MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA DEKORAZIOA ETA APAINKETA ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorni eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

German Aldekoa herriko txistularia zena gogoan izango dute aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaien hasieran

Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak ekainaren 28an hasiko dira eta uztailaren 2ra arte iraungo dute; aurtengo jaiak 74.600 euroko aurrekontua dute



luzko jaien hasierako irudia.

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Berriztarrei amaitu zaie itxaronaldia, eta, urtebeteren ondoren, herriko jaiak gozatuko dituzte berriro. Ekainaren 28an ekingo diote festari, Iremithe dantza taldeko kideek pregoia irakurri eta gero. Ondoren, Donien Atxa altxako dute

eta Dantzari Dantzako azken entsegua egingo dute. Dantzek protagonismo berezia izango dute aurtengo jaietan, izan ere, San Pedro eguneko Dantzari Dantza oraintsu hildan German Aldekoari eskainiko diote. Aldekoa herriko txistularia izan da urte askoan, eta Alejandro

aitagaz eta Jon anaiagaz batera oso lotuta egon da San Lorentzo dantza taldeari eta dantzari orokorrean. Lehenengo eguneko jaia borobiltzeko, Luhartz taldeak erromeria egingo du Elizondo plazan, eta Ezta Ilen zaldibartarrek eta Agur eta Las sexpeares taldeek kontzertua

emango dute txosnagunearan. Ez da musikazaleek edukiko duten hitzordu bakarra izango. Egun bat geroago, Kohatu talde berriztarrak kontzertua joko du Zilibito Records taldeagaz, eta uztailaren 1ean Les Testarudes talde katalanak ska eta reggae doinuz beteko dute eskolako

patioa. Horiez gainera, hainbat DJ arituko dira zenbait egunetan; adibidez, Oihan Vegak Elizondo plaza girotuko du ekainaren 29an.

San Pedro eguna berezi egiten duten beste ekitaldiatariko batzuk paella lehiaketa, herri bazkaria eta mozorroen jaitsiera dira. Kuadrillak goizetik joaten dira udaletxeko lorategiko tokia erabakitzen duen zozketara. Bestalde, txosnagunearan herri bazkaria egingo dute. Txosna batzordeak gai berezia proposatu du mozorro jaitsierarako: zinema. Beraz, inor ere ez dadila harritu Berriz zinema plato erraldoi bihurtuta ikusten badu eta filmeetako protagonistak hara eta hona ikusten baditu.

Sua lagun

Jaiak nobedade batez amaituko dituzte aurtengo Berrizen; Su lagunkoia ekitaldiagaz, hain zuzen ere. Su artifizialen eta petardoaren erabilera jaietan eztabaidagai izan da azken urteetan Euskal Herriko hainbat lekutan, eta jai batzordeko kideek herritar guztientzako moduko ekitaldi batez amaitu gura dituzte festak, Su lagunkoiaz. 23:00etan izango da hori, eta, beraz, udaletxeko lorategian aukera bikaina egongo da jaiak borobiltzeko.

VCG DECOLETAJE
Eitua Industrialdea, 20
48240 Berriz, Bizkaia
946 824 012 | info@vcg-decoletaje.com | 946 827 978 | www.vcg-decoletaje.com

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.
Fabrikatzaile on bat aukeratzearren garrantzia
www.tornilleria-amezua.com

Carrefour BIO express
Zengotitabengoa kalea,
BERRIZ
Tel.: 946 824 215

Produktu ekologikoen eskaintza

Galletak 250gr: 0,75€
Dilistak Kilo 1: 1,79€
Arropa garbigarria 36 garbiketa: 2,79€
Garbigarria 1,5 L: 0,79€
Gorputzeko xaboia 1,5 L: 1,75€



Goian, Ireñe dantza taldearen 1992ko argazkia. Behean, 55. urteurrenean ateratako familia argazkia.

Ireñek jaurtiko du Berrizko jaiak hasiko dituen txupinazoa

Aurten 55 urte bete ditu dantza taldeak, eta urteurren ospakizunetan murgilduta egon dira ekainaren 14tik 16ra

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Ireñe dantza taldearentzat urte borobila izaten ari da aurtengoa. Aurten 55 urte bete dira taldea sortu zenetik, eta urteurrena ospatzeko ekitaldietan murgilduta egon dira orain gutxi arte. Orain, herriko jaiak hasiko dituen txupinazoa jaurtizeko ohorea ere izango dute. Ilusio handiz hartu dute gonbitea. "Ez genuen espero pregoia egitea, aukera hori aztertu ere ez genuen egin eta sorpresa polita izan da", esan du taldeko Andoni Urtiagak.

Herriari eskerrak emateko aprobetxatuko dute udaletxeko balkoia. Dantza taldeak urte osoan zehar jasotzen duen berotasunagaitik oso eskertuta daudela dio Urtiagak. Are gehiago taldearen 55. urteurreneko ekitaldian jasotako berotasunagaitik. "Oso egun politak bizi izan ditugu eta esker hitzak baino ez ditugu herritarrentzat", gaineratu du Urtiagak. Ekainaren 14tik 16ra bitartean batu zituzten ekitaldi

nagusiak. Asteburu "borobila" izan zuten, Urtiagak azaldutakoaren arabera: "Lehenengo egunetik jende mordoak elkartu ginen eta zapatak izugarria izan zen. Frontoia bete egin zen gu dantzan ikusteko, eta horrek poztasun handiz betetzen gaitu. Domekan ere goraino bete zen futbol zelaia, Ireñeko dantzariak direnak eta izan direnak ikusteko. Orduan ere jendearen berotasuna sentitu genuen".

Herriko jaietarako ez dute ekitaldi berezirik prestatu. "Egin beharreko ospakizun eta jaiak egin ditugu; dantzan, zelan ez!", aipatu du Urtiagak. Hartara, Ireñek urteroko ekintzetan parte hartuko du. Ume txikien talde bat eta ezpatadantza ikasten dabilzan neska-mutikoen bost talde dituzte gaur egun. Baita nagusien talde bat eta gaztetxoek beste bat ere. Dena dela, Urtiagaren berbetan, behar dutenean dantzari helduen laguntasuna ere izaten dute.



Okindegia Kafetegia Gozotegia
Iturriza 21, Berriz tfn.946550902



BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behea, Berriz
T: 946 82 77 49
E: o.josu@berrizarkitektoak.com



AHOLKULARITZA FISKALA,
KONTABILITATEA,
LANEKOA;
KOMUNITATE
ADMINISTRAZIOA

Iturriza Kalea, 42, behea - Berriz
685 708 606 / 688 776 828
eratauholkularitza@gmail.com



946 824 228
kimuzabala@hotmail.com

Iturriza, 45
48240 Berriz (Bizkaia)

HIERRROS
RIEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



Ibai Ondo

Sarrailgintza • Burdindegia



KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMARAK

Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ • ferreteriaibaiondo@gmail.com



EREÑA
ERRETEGIA • JATETXEA

Espezialitatea bildotsa buruntzian.
Haragia eta arraina txingarretan.

Ereña auzoa, 36
Tel.: 946 824 033 - 48240 Berriz



Apatako jaiak 2024



www.atxondo.eus

**2024ko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!**

Apatako jaiak 2024

Ekainak 23, domeka

09:00 Mendi martxa. Apatako plazan.

Ekainak 27, eguena

12:00 Jubilatuen luntxa. Soziedadean.

18:00 Txopo txikiaren apainketa. Gaztetxean.

19:00 Kalejira trikitilariekin, Gaztetxetik hasita.

20:00 Txopoak jasotzea, eta pregoia.

Taloak plazan, Atxondoko talogileen eskutik.

21:00 Kontzertua: Alarma Morea.

Ekainak 28, barikua

18:00 Diskofesta umeentzat, DJ Goikoren eskutik.

21:00 Herri afaria. Mahaiak, aulkiak, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.

Tortilla eta bakailao txapelketak.

Ondoren, ITZAL erromeria taldea.

Ekainak 29, zapatua

12:00 Umeentzako tailerra eta jolas erraldoiak, Txatxilipurdiren eskutik.

13:00 Igel txapelketa. Plazan.

14:30 Kuadrillen arteko paella.

16:00 Mus txapelketa, tabernetan eta txosnan.

18:00 Kalejira Mauxitxa Txarangagaz. Plazan.

23:00 Kontzertuak:

- Azken Sustraiak
- Garratz

Ekainak 30, domeka

11:00-14:30 Nekazari eta artisau azoka.

12:00 Andasto Dantza Taldearen dantzaldia. Plazan.

17:00 Pala eta pilota partiduak.

Jaien agurra, txopoa bota, eta, ondoren, txokolate beroa.



akebaso

akebasorestaurante.com

Jaietan zatoz gurera, eta ondo pasa San Pedroetan!

San Juan auzoa 16, Axpe - akebaso@akebasorestaurante.com - 94 658 20 60

www.draxton.com

DRAXTON

ATXONDO



DRAXTON. Mobility inspired

GIS

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara

Apatako jaiak eguenean hasiko dituzte, txopoa jasota eta Buztenikerak talde feministaren pregoiagaz

Rumba doinuak euskaraz abesten dituen Alarma Morea taldeak kontzertua emango du txopo eguenean

JAIK • JOSEBA DERTEANO

Apatamonasterioko jaiak ate joka daude. Datorren asteko eguenean jasoko dute jaiari hasiera emango dien txopoa, eta, Apatako Jai Batzordeak antolatuta, ekimenez beteriko lau egun hasiko dira. Aurten Atxondoko Buztenikerak

talde feministari dagokio txopo eguneko pregoia irakurtzea.

2019ko greba feministara begira herrian baturiko emakume talde batean dago Buztenikerak hazia. Ondorengo urteetan batzen jarraitu zuten, data konkretu batzuetan. Iaz Buztenikerak taldean

gorpuztu zuten mugimendua, papar hori eta buztan luzeko txoriaren izena hartuta. "Txori hauek erakutsi digute denok egin deza-kegula gure lekua. Beraz, zabaldu ditzagun denok hegoak, koloreztatu dezagun gure ingurua. Izan gaitezen aske, izan gaitezen buztenikera", jasotzen du taldearen sorrerako idatziak. Pregoia irakurtzeko ohorea "ilusio handiz eta erantzukizunez" hartu dutela diote taldeko kideek.

Txopo egunak osagai gehiago ere izango du. 12:00etan jubilatuen luntxa egongo da soziedadean. Arratsaldean, 18:00etan, txopo txikia apainduko dute Gaztetxean. Ondoren, kalejiran joango dira plazara txopoa jasotzera. Azkenik, 21:00etan, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du.



Txopoa kalejiran eraman eta plazan jasoko dute.

Kontzertuak, lehiaketak, azoka... Ekimenez beteriko lau egun Apatan

Bakailao eta tortilla txapelketek ez diote hutsik egingo urteroko hitzorduari ekainaren 28an; hurrengo eguna punk-rock doinuekin dator, Garratz eta Azken Sustraiak taldeekin

JAIK • J.D.

Gainerako egunetan ere egongo da zegaz gozatu Atxondon. Ekainaren 28an, atxondarrak herri afarian batuko dira, eta tortilla eta bakailao txapelketak egiteko aprobetxatuko dute. Eguna Itzal erromeria taldearen dantzaldiagaz errematatuko dute.

Musikagaz jarraituta, ekainaren 29an punk-rock doinuak nagusituko dira, Azken Sustraiak eta Garratz taldeekin.

Bestalde, Eixu elkarteak artisautza eta nekazaritza azoka antolatu du ekainaren 30erako. Askotariko postuak egongo dira bertan: Harrikoskor, Bitxik Kool, Tamarindo, Artea soinean...



Bakailao txapelketa, Apatako jaietan.

itziar
Kafetegia - Taberna

Benta Barri, 2 · Tel.: 946 582 363 · 48291 Atxondo (Bizkaia)

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI BIODEGRADAGARRI ETA BIRZIKLAGARRIAK

Zoriontsuak izan jaietan!
www.soul-cemosa.es

cemosa
GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - Atxondo (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxa: 946 231 799

Atxondo^{ko}
Carnicería · Harategia

Produktu lokalak salgai · Kalitatezko produktuak bertatik bertara · Kalitate oneko haragia · Etxeko hanburesak, katxopok eta lasagnak

WhatsAppez eskaerak egin daitezke:
747 494 412

Garaje atek / Automatikoak / Eskuzkoak
Instalazioak / Konponketa / Mantenua

ATEMATIK

Artia industrialdea, z/g Tel.: 94 623 15 23
48 292 Atxondo - Bizkaia

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxa: 946 583 416
www.burdinak.com

BI-632 Durango
Pol. Ind. ARTIA
Atxondo
BI-632 Elorrio




LABIRINTOA

Lagundu untxiari bere etxera heltzen.




ZENBATU

Zenbat daude animalia bakoitzetik?



MARGOTU

Margotu irudia gurago duzun moduan.



Ekainaren 21ean

ABADIÑO Kobalibe

ED Eternum + Darkembrace + Metalium + BRHG, 18:30ean hasita, institutuko instalazioetan.

ATXONDO sanjoanak

Pintxo potea, 19:00etan, Axpen.

Txopo txikia eta handia altxatzea, 20:00etan.

Haize-arrosa + Andoni

Oilokiegi + Dj Bull, 21:30ean.

DURANGO kontzertua

Roberto Frasco Madrileko Katedraleko organista, 20:30ean, Andra Marian.

IURRETA musika

D' capricho, 20:30ean, Aita San Migel plazan.

MALLABIA sanjoanak

Jaiak hasteko txapligoak, 19:00etan, Goitia auzoan.

Bertso afaria: Sustrai Colina eta Unai Agirre, 21:30ean.

Gorka eta Mikel trikitilariak.

Ekainaren 21etik 23ra bitartean

ZORNOTZA musika

Haizetara Kaleko Musikaren XVII. Jaialdia, herrian zehar.

Ekainaren 22an

ABADIÑO Kobalibe

Alerta + Sugoi + Skeleton + Rise to Fall + Dark Tranquillity + Crisix, 16:30ean hasita, institutuko instalazioetan.

ATXONDO sanjoanak

Mozorro Eguna: Turistak Axpen.

Igel txapelketa, 12:30ean.

Bakailaoa pil-pil eran eta patata tortilla txapelketak, goizean (aurkezpena, 14:00etan).

Herri bazkaria, eguerdian.

Bingoa.

Mus txapelketa, 17:00etan.

Eingo taldea, 19:00etan.

Los Tenampas mariatxiak, 22:00etan.

Turista jantzirik onenari sari berezia.

DURANGO jaiak

Musika kalejira, zurezko jolasak eta mozerro tailerrak, 11:00etan, Murueta Torren.

Aurpegi margotzea, 11:30ean.

Paella txapelketarako izen ematea, 12:00etan.

Paellak aurkeztea, 14:30ean.

Mus txapelketa, 16:00etan.

Apar festa, 17:30ean.

Demo Batxata, 18:00etan.

Txokolatea, 18:30ean.

Rifen zozketa, 20:00etan.

Akustikover, 21:00etan.

DURANGO bisita gidatua

'Durango zuri-beltzean' (Turismo Bulegoa eta Gerediaga elkarte). Izena eman behar da.

DURANGO Intxaurre Eguna

Igel eta dardo txapelketak, 12:00etan, Intxaurren.

Bazkaria, 14:30ean.

KSKA pintxada + Mojituek, 16:00etan.

Ekitaldia, 18:30ean.

Poteo girotua, 19:00etan.

Lumatzak, 22:00etan.

DURANGO antzerkia

'Art-Ilusio' (Markeliñe), 19:00etan, Otamotzena parkean.

ELORRIO bisita gidatua

'Argiñetako altxorak', 11:00etan, Turismo Bulegoan. Izena eman behar da.

ELORRIO kontzertua

Bellako + Leekore, 22:30ean, Gaztetxean.

ELORRIO mendeurrena

Elorrio Futbol Klubaren mendeurrena.

Emakume jokalarari ohien partidua, 11:00etan, Eleizalden.

Haur parkea, 12:30ean, plazan.

Herri bazkaria, 15:00etan.

Vinilo HD eta Delko DJak,

17:30ean.

GARAI sanjoanak

Herri afaria, 21:00etan, Momoitioko San Joanen.

Laja II.a eta Lutxurdio.

IURRETA irteera

Bizikleta irteera Zestoara, 08:00etan, Iurreta Txirrindulari elkarte.

MALLABIA sanjoanak

Umeentzako jolasak, 18:00etan, Goitia auzoan.

Patata tortilla lehiaketa,

20:30ean.

Ai Ama taldea, 22:00etan.

Erromeria: Gorka eta Mikel.

ZALDIBAR txapelketa

'Herrixen jaixen' tortilla txapelketa, 12:00etan, Zaldia plazan.

Ekainaren 23an

ABADIÑO San Joan

Umeen jolasak, 18:30etik 20:30era, Astolan.

DJ Gartzzi, 19:00etan.

Eusko Labeldun

hanburgesak, 20:00etan.

San Joan sua, 22:00etan.

ATXONDO sanjoanak

Meza, 11:30ean, Axpen.

Andasto dantza taldea,

12:30ean.

Mus txapelketa, 13:00etan.

Zintzilik emozioen

laborategia abentura parkea,

egunean zehar.

San Joan sua, 21:00etan.

Txokolatea.

BERRIZ San Joan

Ogitartekoak eta edaria, 20:30ean, Gure Izarrak tabernan.

New Tocados txaranga,

21:00etan, Berizburun.

San Joan sua, 22:30ean.

DURANGO bisita gidatua

'Durango 0 gunea' (Turismo Bulegoa eta Gerediaga elkarte). Izena eman behar da.

DURANGO jaiak

Tabirako martxa, 08:30ean (izen ematea, 08:00etan).

Lasterketa, 09:30ean.

Sari banaketa, 12:00etan.

Eixu artisau azoka, 12:00etan.

DURANGO dantzaldia

Nagusientzako dantzaldia: Sua taldea, 18:30etik 20:30era, Ezkurdin.

DURANGO San Joan

Tor Magoa, 17:00etan, Otamotzena parkean.

Txokolatea, 18:00etan.

Crazy Jazzers, 21:00etan.

San Joan sua isiotuko da, 22:15ean.

ELORRIO San Joan

San Joan ermitara igoera, 16:30ean, plazatik.

Azkona pailazoak eta

merienda, 17:00etan, San Joan ermitan.

Disfo festa. Gor Super DJa, 21:30ean, kiroldegjaren alboko aparkalekuan.

Sua, suzko zezenak eta suzko erruberak, 22:15ean.

DURANGO San Joan

Tor Magoa, 17:00etan, Otamotzena parkean.

Txokolatea, 18:00etan.

Crazy Jazzers, 21:00etan.

San Joan sua isiotuko da, 22:15ean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Ekainaren 24an

ATXONDO sanjoanak

Meza, 11:30ean, Axpen.

Jubilatuentzako luntxa.

Briska txapelketa, 17:00etan.

GARAI sanjoanak

Meza, 11:30ean, Momoitioko San Joanen. Gero, hamaiketakoa.

MALLABIA sanjoanak

San Joan sobrea prestatzea, 18:00etan, Goitia auzoan.

Meza eta luntxa, 19:00etan.

Errifen zozketa.

Ekainaren 26an

DURANGO dantza bertikala

'Madre perla' (Maitane Sarralde konpainia),

19:00etan, Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Los indeseables

barikua 21: 18:30 / 21:30
zapatua 22: 19:30 / 21:30
domeka 23: 18:00 / 20:15
astelehena 24: 18:00 / 20:15
martitzena 25: 18:00 / 20:15
eguztzena 26: 19:00

• La bandera

barikua 21: 21:00
zapatua 22: 19:00
domeka 23: 20:15
astelehena 24: 20:15
martitzena 25: 18:00

• The Artic Convoy

barikua 21: 18:30
zapatua 22: 21:30
domeka 23: 18:00
astelehena 24: 18:00
martitzena 25: 20:15

• Del revés 2

barikua 21: 18:30 / 21:00
zapatua 22: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 23: 17:00 / 19:30
astelehena 24: 18:00 / 20:15
martitzena 25: 18:00 / 20:15
eguztzena 26: 19:00

• Animal humano

eguztzena 26: 19:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Amigos imaginarios

domeka 23: 17:00 / 20:00
astelehena 24: 20:15

“Egiteko modu propioa dugu, inongo putzutuan sartzen ez den antzerki zuri horretatik aldentzen ahalegintzen dena”

Hainbat aukera egongo da Bar Santiren lan berria ikusteko, lehenengoa Zaldibarren, uztailaren 7an; Berrizen, Durangon eta Elorrion ere egongo dira



Juanjo Otero (maskaragaz) eta Aritza Rodrigueiz.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Erretiro adinaren atzeratzea abiapuntu hartu, eta populismoaren eraginei buruzko antzezlanaren sortu dute Bar Santi konpainiako Juanjo Otero iurretarrak eta Aritza Rodrigueiz zaldibartarrak. "Mezu populistek boterearen mezua errepikatzen dute. Langileria lanean gura gaituzte 75 urte egin arte, eurek euren luxuzko bizitzari eusten jarraitzeko", adierazi dute konpainiakoek. Gertutik bizi den egunerokoaren erradiografia egingo dute, hain berezkoa duten ironiagaz eta umoreagaz bildua. Oraingoz, hamabost emanaldi dituzte lotuta udarako. Durangaldean, Zaldibarren, Berrizen, Zornotzan, Durangon eta Elorrion plazaratuko dute 'Lanean Jarraitu 75'. Leioako Umore Azokan egin zuten estreinaldia, maiatzean, eta udako emanaldiatarako prestatzen dabilta orain. ANBOTOK Rodrigueizegaz berba egin du.

'Lanean Jarraitu 75'. Nondik dator ideia?

Erretiroaren adinaren inguruko hausnarketa bat izan zen antzezlanaren abiapuntua. Gai hori jorratzen hasi eta hauxe da irten zaiguna. Gaia planteatzerakoan, gero ideiak botatzen hasten gara, eta hortik ateratzen dena entsegu eta inprobisazioetan hasten

Populismoari eta European hazi diren populismo faxistei buruz berba egiten dugu; esango nuke horixe dela antzezlanaren ardatza

da finkatzen gero. Erretiroaren adinaren inguruko gaia, baina, aitzikia legez hartu dugu populismoaren inguruan berba egiteko. Populismoari eta European hazi diren populismo faxista horiei guztiei buruz berba egiten dugu.

Esango nuke horixe dela ardatza. Umorera jotzen duzue beti, baina kritika soziala ere oso presente dago zuen lanetan. Gaur egun bizi diren egoerekin, baduzue non inspiratu.

Ba, bai. Gure ikuskizun guztietan kritika soziala sartzen ahalegintzen gara, beti ere umorearen bitartez. Horren eraginez, hautsak harrotzen dira, baina beti uste izan dugu mezua errazago heltzen zaiola umorearen bitartez publikoari, modu erosoago batean. Azken finean, hobe da informazio bat txisteren baten bitartez helaraztea, besterik barik, testu baten bitartez barik. Eta gai sozialek beti dute gaurkotasuna, beti dira jorratu beharrekoak. Antzerkia barruak astintzeko eta kontzientzia sortzeko erreminta bat dela uste dugu.

Leioako Umore Azokan estreinatu zenuen. Zelako harrera izan zuen? Leioako Umore Azokan estreinatu genuen, bai, eta oso ondo joan zen. Publikoak harrera bikaina

egin zion. Pena emanaldi bakarra egin genuela; izan ere, bigarre-na bertan behera geratu zen, euriagaitik. Horixe du kaleak, eguraldiak baldintzatu egiten duela. Baina, bueno, jaialdiak beti bermatzen du behintzat emanaldi bat salbatzea. Barikuan euria egin

Ez dut uste mugarik ipini behar zaionik adierazpenari, eta, alde horretatik, gure estiloa nahiko definituta dugu. Oso konpainia makarra garela esango nuke

zuenez, zapatuan kiroldegi bat zabaldu ziguten. Ez zen aukerarik proposena, testua oinarrikoa delako gure lanetan, baita musika ere, eta horrelako lekuetan oihartzuna sortzen denez ez zen lekurik proposena, baina aurrera

atera ahal izan genuen, behintzat. Emanaldia oso ondo egon zen eta, esan dudan moduan, harrera ona egin ziguten, eta, beraz, pozik gaude.

Zenbait antzezlanen emanaldiak tartekatzen dituzue. Profesionalki aritzeko beharrezkoa da horrela ibiltzea?

Ikuskizun baten sorkuntza prozesua amaitu orduko beste lan berri bat izaten dugu buruan, eta orain artean urte birik behin estreinatu izan dugu lan berria. 2017an sortu zen konpainia, eta hiru ikuskizun genituen sortuta. Merkatuak deitzen badigu, guk plazaratu egiten ditugu. Kale gorrian, adibidez, 2017an sortu genuen, eta oraindino egiten ditugu emanaldiak. Jendeak gustura ikusten du, funtzionatzen du, eta, beraz, etekina atera behar zaie ikuskizun guztiei, antzerkiaren munduan beti gaudelako krisian (barrez). Badaude konpainiak hamar urte baino gehiagoko antzezlanak dituztenak eta jada ez dituztenak taularatzten; baina hori ez da gure kasua, oraingoz behintzat. Lehenengo ikuskizun bietarako deitzen digute, eta horiek egiten jarraitzen dugu. Horrela, uda ere betetzen zoaz. Guk Euskal Herrian egiten ditugu emanaldirik gehienak. Espainiara ez gara asko irteten, jorratzen dugun gaiengaitik alde batetik, eta Espainian kontratazioa nahiko ahula delako bestetik. Gure merkatua Euskal Herria da eta uda bakarrean zirkuitu osoa eginez publikoa nekatzeko aukera ere hor dago.

2017an sortu zenuen Bar Santi. Estilo propioa garatu duzuela iruditzen zait. Horrela sentitzen duzue zuek ere?

Politikoki Juanjo eta biok alde berean gaudela esango nuke, eta, alde horretatik, umorea egiteko orduan oso ondo konektatzen dugu. Oso ondo pasatzen dugu eta, azken finean, horixe da gure helburua. Egiteko modu propio bat dugu, inongo putzutuan sartzen ez den antzerki zuri horretatik aldentzen ahalegintzen dena. Gure ikuskizunetan nahiko basatiak izaten ahalegintzen gara, oso ironikoak. Lagun artean esaten diren astakeriak eta jendaurrean isiltzen diren kontuak sartzen ahalegintzen gara. Ez dut uste mugarik ipini behar zaionik adierazpenari, eta, alde horretatik, gure estiloa nahiko definituta dugu. Oso konpainia makarra garela esango nuke.

Hamabi emanaldik osatuko dute Musikaire kultur zikloaren 24. edizioa

Musikaire uztailaren 5ean hasi eta 28an amaituko da; besteak beste, Olaia Inziartek, Tapia eta Leturia Band-ek, Los 300 bandak eta Ojos de Brujoko Marinah-k egingo dituzte



Marinah Ojos de Brujo taldean egin zen ezagun. **ORIANA ELIÇABE.**

MUSIKAIRE • ARITZ MALDONADO

Musikaire zikloaren 24. edizioa aurkeztu dute Elorrion. Zenbait diziplinako dozena bat artistak emanaldiak egingo dituzte herriko zenbait lekutan, eta, aurten ere, kulturaren alde egindako apustua nabarmendu dute Julene Lazkano Elorrioko alkateak eta Itsaso Ba-

sauri kultura zinegotziak. "Elorrio erreferentziatzeko bihurtu da inguruan", esan dute. Aitor Iriarte Arriolako kudeatzaileak programazioaren aniztasuna azpimarratu du: "Ikusteko hain errazak ez diren proposamenak ekartzen ahalegindu gara, urtero legez. Nazioarteko artistak zein Euskal Herrikoak

daude eta denek dute zeozer interresgarria eskaintzeko". Tarwa N-Tiniri talde marokoarrak desertuko bluesa egiten du, adibidez, eta Son Rompe Pera talde mexikarrak kumbia eta punk nahasketa.

Uztaileko lehenengo asteburuan Tapia eta Leturia Band, Marinah (Ojos de Brujo taldeko abeslari ohia) eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunen Ez gara jaitsiko ikuskizuna ikusteko aukera egongo da Elorrion. Emanaldi hauek Elizpean izango dira. Gainerakoak Lariz jauregian, plazan, Arespakotxaga lorategian eta Aldapebeitian izango dira. Agenda atalean dago egitaraua osorik.

Photohorma egitasmoa

Musikaireren edizio honetarako Photohorma egitasmoa berreskuratu dute eta Elorrioko eta auzoetako hormetan Maria Otxandianoren, Patxi Granadoren, Josu Urizarbarrenaren, Karlos Erizen eta Begoña Colomoren lanak daude ikusgai. "Natura folklorea, arkitektura, arte eszenikoak, paisaiak eta munduko beste kultura batzuetako irudiak batu dituzte erakusketan, eta elorriarren zein bisitarien interesa erakarriko dute", azaldu dute.

Iruri Altzerreka garaitarrak Mendaroko Txirristaka Saria irabazi du

In Leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatu dute lehiaketa



Enetz Ezenarro eta Iruri Altzerreka.

BERTSOLARITZA • A.M.

Iruri Altzerreka Martinez garaitarrak Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketa irabazi du. Eusebio Mugertza Txirristaka bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemugaren harira antolatu dute lehiaketa, Mendaron (Gipuzkoa). In Leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatzen dute lehiaketa eta ekainaren 14an egin zuten sari banaketa ekitaldia. Altzerrekak C kategorian parte hartu du, hau da, 2005ean edo lehenago jaiotako Euskal Herriko bertsosaleen kategorian. Epaimahaiaren berbetan, garaitarra-

renak "teknikoki oso betso onak eta neurri estuan oso beteak" dira; hamalau lan aurkeztu dituzte kategoria horretan. Oier Etxeberria azpeitiarrak jaso du bigarren saria. Altzerrekak 1.000 euroko saria eta garaikurra irabazi ditu, eta Etxeberriak 500 euroko saria eta garaikurra.

A kategorian, 2010ean eta hortik aurrera jaiotako Debabarreneko bertsosaleek zuten aukera parte hartzeko, eta, guztira, 74 lan aurkeztu zituzten. Horietariko 58, bertako gazteenak. Epaimahaiak Luken Zulaika mendaroarraren lana saritu du; bigarren saria Axular Larrañagak irabazi du.

Gai librean

Euskal Herriaren erakusgarria?

Santu gutxi daudela, baina, herriak santutzat duena ere pekatuek salatzen dute. Ez da denbora askorik igaro Euskal Herria, Bizkaia, Durangaldearen zati handi bat Bilboko erreka horretara hurbildu zirela. Eta orduan ere hozkiri sortzen zuten hainbat kontu ikusi eta entzun behar izan genituen. Gernikar bat bere kuadrillaren berbak estali guran balkoira irten zen berba ederrak esatera. Eta ondo, e? Baina bueno, estali ezina zen panorama hura. Horrez gainera, testosteronaz hordi jai osoan.

Beti pentsatu izan dut neure baitan egiten dugun guztia, Anbotoren bari-kuroko alea, kiroleko zutabea, irakurtzen ari zaren berau, erosketak non egin, zer partekatu sareetan... ideologikoa eta politikoa dela. Eta egia da,



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

tamalez, futbolarekin gertatzen dena: gizartearen zati handi batek eguneroko arazoak ahazteko bide legez ikusten du futbola. Era berean, ordea, futbola publizitate legez ikusi beharra dago: zer dion badakizu, eta uste duzu ez dizula eragiten, baina benetan bai; berez zure ideiei, zure politikiei eragiten die. Eta hor ailegatzen gara gure santuenganaino: San Simon, San Nicolas...

Bigarrenaren kasuan "gaztea da, ez du inguru euskalduna..." eta abarrez errugabetu zuten askok "euskara maila? Zero karkar" esan zuenean ñ-dun Españaiko futbol selekzioaren kontzentrazio batean zegoela. Athleticzale abertzaleek ere bai (badago abertzalea ez denik, ta tira, ez da azken aldia zutabea esango dudana, ez dakit zer espero duen jendeak horiengandik). San Simon izan da azken protagonista

baina. Futbolari gutxi ikusi ditut Kylian Mbappe bezain argi berba egiten, faxisten aurkako gazte aktibazioa eskatuz bere kasuan. Ez da santu-santua izango hura ere, baina tira, ez da gutxi. Ba, han non agertzen den San Simon, hori ere gelditu guran. Futbolariak ez duela politikaz berba egin behar dio orain... Okinak ogia egiten daki, igerilariak igeri, eta musikariak musika. Baina denek eraiki nahi dute beraien etxea gura duten legez, edo behintzat ahalik eta ondoen. Ez dakit zer espero genuen bere aldetik, baina ultraeskuinaren aurka egiteko deiaren aurka dagoena, zer da? Erantzuna, zuen esku. Halere, eta ikusita zein agente ditugun okinari, musikariari, igerilariari eguneroko arazoak ahazteko bide, galdera egiten dut: Euskal Herriaren erakusgarriak dira?

Elorrio Futbol Klubak 100 urte egin dituela ospatzeko, egun osoko jaia antolatu dute zaturako

Emakumezko jokalarari ohien partidu batez hasiko dute eguna, eta bazkari herrikoiaz eta musikagaz amaitu

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Elorrio Futbol Klubeko arduradunek taldearen 100. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta aurkeztu zuten martxoan, Arriola antzoki-ko ekitaldi batean. Ekitaldi nagusietariko bat zapatu honetako da. Egun osoko jaia antolatu dute eta ospakizuna kalera aterako dute.

Eguna futbol partidu berezi batez hasiko dute. Eleizalde zelaian, emakume jokalarari ohien arteko partidua izango da, 11:00etan. Sarrera doakoa da. Ondoren, jaia herrigunera zabalduko dute, trikipoteo baten bitartez. Plazan umeentzako jolas parkea egongo da eta, 15:00 inguruan, hantxe bertan bazkalduko dute, denek elkarregaz. Azkenik, DJ bik girotuko dute arratsaldeak: Vinilo HD-k eta Delkok.

Ekimenak urte osoan

Zapatukoa urteurren festa ospatzeko antolatu duten ekitaldi sorta zabal baten parte da. Esaterako, maiatz amaieran, Elorrioko, Athle-

ticeko eta Eibarreko beteranoek hiruko txapelketa bat lehiatu zuten Eleizalden. Omenaldiak eta dantzak ere izan ziren partiduen artean. Elorrioko Filatélica eta Numismática elkarteak ere bat

egin du ospakizunagaz. Aurten-go erakusketa futbolari buruzkoa da eta Iturri Kultur Etxean bisitatu daiteke, ekainaren 29ra arte. Gainera, klubaren mendeurrena oinarri duen zigilua atera

dute. Astelehenean, Correoseko langileek elementu horiekin zigilatu zuten filatelia-materia-la, eta Elorrioren mendeurrena mundu osora hedatuko da horrela.



Elorrioko, Eibarko eta Athleticeko betaranoei Agurra dantzatzeko, maiatz amaieran Eleizalden egindako txapelketan.

Gaztetxoaren xake txapelketa Durangon, xakerako zaletasuna sustatzeko

XAKEA • J.D.

Durangoko Larrasoloeta Xake Taldea azken urteetan ahalegin berezia egiten dabil gazteengana heltzeko. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dute gazteei begira. Esaterako, domeka honetarako Sanjoanetako xake txapelketa antolatu dute, lehenengo, 14 urtera arteko

Txapelketa 14 urtera artekoek zuzenduta dago eta Landako Kiroldegiko beheko solairuan da

gazteentzat. Izen ematea aje-drez.durango@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez egin daiteke.

Txapelketa atletismo pista-ren ondoan dagoen Landako Kiroldegiko beheko solairuan izango da. Lehenengo partidak 09:30ean hasiko dira, eta azkenengoak 14:30 inguruan jokatu-ko dituzte.

MareAmore nesken futbol klub berria sortu dute Zornotzan

Hasteko, 14tik 18 urtera arteko nesken bila dabilta adin horretako taldea sortzeko

FUTBOLA • J.D.

Emakumeen futbolariek aupada bat jaso du Zornotzan. Hainbat lagunaren ekimenez, MareAmore futbol kluba sortu dute. Hutsune bati irtenbidea emanez, adin jakin batetik gorako neskei futbola herrian bertan praktikatzeko jarraitzeko espazio iraunkorrak

eta egitura finkoak eskaintzea ditu helburu.

Egitasmoak kezka bati erantzuten dio. Ikastxiki futbol eskolak kimu eta haur kategoriako taldeak ditu, baina adin horretatik aurrera neskek ez dute herrian futboleant jarraitzeko aukerarik. Beraz, MareAmorek kadete adineko eta

handik aurrerako neskei futboleant aritzeko aukera eskaini gura die. Horrela, hasieran, 14tik 18 urtera arteko —2006 eta 2010. urteen artean jaiotakoak— jokalarien bila dabilta datorren denboraldiari begira. Interesdunak @mareamorenfk Instagram kontutik ipini daitezke hartu-emanean klubagaz.



Olaia Justo, Irati Barrenetxea, Irati Lejarraga eta Edurne Azpitarte MareAmore klubeko sustatzaileak.



Tabirakoko talde berria Landako Kiroldegian.

Tabirakok aniztasun funtzionala dutenen taldea sortu du

Domekan Bizkaiko kirol egokituko azken faseko lagunarteko bat jokatu dute, lehenengo, Bilbon

SASKIBALOA • J.D.

Tabirako saskibaloia klubak talde bat gehiago izango du datorren denboraldian. Berdintasunaren arloan pauso berri bat emanda, aniztasun funtzionala dutenen taldea sortu dute. Gainera, talde berriak domeka honetan bertan izango du estreinaldia. Kirol egokituko Bizkaiko azken faseko jokatu da Bilbon, eta Tabirakok

lagunarteko bat jokatu du txapelketa horren barruan.

Bestalde, emakumeen taldearen 50. urteurren ospakizun ere aurrera jarraitzen dute. San Agustin kultur guneko hallean erakusketa bat zabaldu dute. Eta ekainaren 27an, 19:00etan, omenaldi gala bat egongo da San Agustinen. Gonbidapenak Arte eta Historia museoa eskuratu daitezke.

Zapatuko Amaraune mendi probari ibilbide laburra gehitu diote

Ohiko 21 kilometrokoa ez ezik 12ko beste bat ere badago aukeran, parte hartzea



Lasterketan zehar hainbat anoa gune egongo dira korrikalariarentzat.

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Berrizko Amaraune mendi lasterketa egonkortzen dabil apurka-apurka eta zapatu honetan hirugarren aldia egingo du. Nobedadeekin dator, gainera. Esaterako, ohiko ibilbide luzeari (21 km) 12 kilometroko laburrago bat gehitu diote aurten. "Proba laburra eramangarriagoa da eta herriko jendea nahiz luzea egiten ausartzen ez den edonor animatu dadin sortu dugu", adierazi du lasterketako antolakuntza taldeko Aiert Agirrek.

Ibilbide luzeak 1.100 metroko desnibel positiboa du, eta

laburrak 500 metrokoa. Biak Elizondo plazan hasiko dira, luzea 09:00etan eta laburra 09:30ean. Lasterketak iaz baino ordubete lehenago hasiko dira, eguerdirako iragarrita dagoen beroa saihesteko. Proba luzeak Berriz inguruko hiru mendi zeharkatzen ditu: Sarrimendi (604 metro), Gaztelumendi (532 m) eta Oiz (1.026 m). Oizen Iturzurigana ingururaino helduko dira.

Etiketaren Berdea

Eskualdeko beste hainbat mendi lasterketak harturiko bideari

jarraituta, aurten Etiketaren Berdea egitaspora batu da Amaraune. Horrela, antolatzaileek hainbat neurri hartu dute elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarrituriko lasterketa sustatzeko.

Aurtengo aldia Bizkaiko Trail Ligarako puntuagarria izango da. Lehenengo hiru gizon eta emakumeek saria izango dute proba bakoitzean: irabazleak 150 euro, txapela, garaikurra eta lore sorta; bigarrenak eta hirugarrenak garaikurra eta lore sorta.

Tabirako mendi lasterketa domekan, auzoko jaietan

Mendi martxagaz hasiko durte eguna, eta, ondoren, 09:30ean, lasterketari ekingo diote eliza ingurutik



Mendi lasterketak eta martxak 20 kilometroko ibilbidea izango dute.

MENDI LASTERKETA • J.D.

Durango Tabira auzoko jaien barruan badira hainbat ekimen urteroko hitzordu bihurtu direnak, eta mendi martxa eta lasterketa dira euretariko bi. Biak domeka honetan egingo dituzte.

Martxa bi daude aukeran: 20 kilometroko luzea, 1.060 metroko desnibel positibokoa, eta 12 kilometroko laburra, 545 metroko desnibel positibokoa. Biak 08:00etan hasiko dira, Tabirako

eliza ondotik. Mendi lasterketari 09:30ean ekingo diote. Martxa luzeak eta lasterketak ibilbide bera dute: Neberako itzulua. Korrikalariak Neberondo, Katatzka, Landaederra eta San Andres inguruetatik ibiliko dira. Katatzka da martxako nahiz lasterketako punturik garaiena, 653 metrogaz. Bideko zenbait lekutan anoa guzuek egongo dira, jan-edanagaz. Izena eman duten denek kamiseta bana jasoko dute opari.

Jokaldia

Villalibreren galleta

Geroago eta lasterketa gehiagotan ikusten ditut kirola eta aldarrikapena eskutik, eta poztekoa da. Asteburuan Lasterbidean lasterketa eta martxa izan ditugu Abadiñon, eta ia mila lagun batu ginen korrika eta oinez euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubideen alde. Leitzako EH Mendi Erronka ultratraila ere aldarrikapenak oinarri hartuta jaio zen, orain hamar urte: euskal mendizaletasuna sustatzea, euskal selekzioen ofizialtasuna, euskararen sustapena, lurralde-tasuna, eta ingurumena babestea ditu helburu nagusi. Hirugarren lasterketa bat ere aipatu gura dut: Burdin Hesiko Mendi Lasterketa, Gamiz-Fikakoa. Gerra zibilean, Eusko Gudarosteak Burdin Hesi edo Burdinazko Gerriko horretan aurre egin zion Francoren armadari, baina azkenean frankistek Bilbo eurenaganatu



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Unai Simoni ez zaio gustatu. Bere iritziz, kirolariak ez ei dira politikan eta abarretan sartu behar

Mbappék gazteak botoa ematera joan daitezten eskatu du, eta alderdi ultraeskuindar bati ez emateko zehaztu. Chapeau!

zuten, zoritxarrez. Lasterketak memoria historikoa berreskuratzea du helburu nagusi, hesia osatzen zuten lekuetatik igarota. Hortxe aldarrikapenetik sorturiko hiru lasterketa.

Asteon Mbappé futbolari frantziarrak ere aldarrikapena egin du hedabideetan,

eta hautsak harrotu ditu. Frantziako hauteskundeetan gazteak botoa ematera joan daitezten eskatu du, eta alderdi ultraeskuindar bati ez emateko zehaztu, arrazoiak ezin hobeto argudiatuta. *Chapeau!* Baina Athleticetako eta Espainiako selekzioaren atezain Unai Simoni ez zaio gustatu. Bere iritziz, kirolariak erreferente dira eta ez ei dira politikan eta abarretan sartu behar. Kontrakoa izan beharko luke, ba! Palestinako genozidioaren aurrean ere denok isilik? AHTaren aurrean ere isilik? Txarrena da, nire kasuan, gure semeentzat Unai Simon erreferente dela, Athleticetako atezaina delako, eta etxean borrokan ibiltzen direla bere irudia agertzen den galleta ahorratzeko. Beste erreferente batzuk gura nituzke umeentzat galletetan, jende konprometituagoa: Asier Villalibre futbolari eta tronpetista euskaltzalea, esate baterako.

Berrizko Ireminē dantza taldearen 50+5 urteurrena

LUCIA MERUELO



Lasterbidean lasterketaren X. eta azken edizioa Abadiñon

LUCIA MERUELO





ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



SASIKOA
72 m². Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, komuna eta sukalde-egongela.
193.000€ C.E.E= E



ABADIÑO
Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea.
198.000 € C.E.E= E



IBAIZABAL
APARTAMENTUA. Sukaldea eta egongela handia. Trastelekua eta garajea. Bizitzen sartzeko moduan.
220.000 € C.E.E= E



DURANGO
73 m². Erdi berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela terrazarekin Hegoaldea. Garajea eta trastelekua.
285.000 € C.E.E= A



DURANGO
3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea trastelekuarekin.
249.000 € C.E.E= E



TRONPERRI
123 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela handia. Ganbara eta garajea. Txokoa eta solariuma.
260.000€ C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

PINONDO: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

BARRENKALEA: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 50,56 m²
logela 1
SAN FAUSTO: 50,56 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Banaketa berria egiteko aukerarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Ikuspegiak. Leku onean kokatua, zonalde lasaia eta aparkatzeko erraztazuna.
114.000 € C.E.E: G



DURANGO 69,99 m²
3 logela
ANBOTO KALEA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. ITE-a pasatutakoa.
192.000 € C.E.E: E




DURANGO 82 m²
3 logela
ASTEPE: Hall-a, egongela, sukalde jantzia, bi komun, eskegitokia eta galeria. Kanpoaldera ematen du (Ipar/Ekialde/Mendebalde), altua, argitsua. Kokapen ona. Trastelekua eta garajea. Egoera onean.
258.000 € C.E.E: Bidean



ABADIÑO 96 m²
4 logela
ALFREDO BAESCHLIN: halla, egongela, sukaldea, 4 logela, despentsa eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde). Argitsua. Ikuspegiak. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. Berriztatuko, banaketa berria egiteko aukerarekin. Apartalekua atariaren ondoan eta 14m²-ko lokala. Aisialdirako espazio komunitarioa. ITE-a pasatutakoa. Etxebizitzak ez du derramarik zorretan.
154.000 € C.E.E: F



MATIENA 73 m²
3 logela
TXINURRISOLO: Egongela-sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du, ipar-ekialde-hegoaldea. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuguneetatik gertu. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez du berrikuntzarik behar.
169.000 € C.E.E: E



IURRETA 56,01 m²
2 logela
DANTZARI: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du, ekialde-mendebalde. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Instalazio elektrikoa eta iturgintza berriztatua 2007. urtean. ITE-a oraintsu pasatutakoa. Ez du berrikuntzarik behar.
166.000 € C.E.E: E

//BERRIAK DURANGO

ANBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Igogailua. **280.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERROTARITXUENA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000€ / E.E.Z=D**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//ABADIÑO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikituko baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ELIXOSTE: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=F**

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

Botikak

BARIKUA, 21 · 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 24 · 09:00-09:00
09:00-22:00	MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 22 · 09:00-09:00	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 25 · 09:00-09:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO, INTXAURRONDON 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 26 · 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZAI
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	RUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 27 · 09:00-09:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
09:00-22:00	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 23 · 09:00-09:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA
Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Ze, zeu, zeu, zeu, zeu, zeu, zeu, zeuuuu... geure etxeko printze kapritxosue! Ilargiraino eta buelta **Aunitz** maite zaittugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 13° / 20° ☁

ASTELEHENA ↓ 13° / 24° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 22° ☁

DOMEKA ↓ 14° / 20° ☁

MARTITZENA ↓ 12° / 30° ☀

EGUENA ↓ 14° / 23° ☁

UDAKO ORDUTEGIA

Ekaina	Urtaila	Abuztua	Iraila
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29



8:30-13:30
ITXITA

Iurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA



"Oraindino hausnarketa prozesu batean nago unibertsitatean zein gradu ikasi erabakitzeke"

Kimetz Lopez de Etxezarreta durangarrak komunikazio zein ekonomia arloko graduren bat aukeratzeko asmoa du. Nota ez da oztopo izango, USEn 13,7 atera du eta, EAEko onena



Kimetz Lopez de Etxezarreta

Ikaslea

DURANGO | 2006

DURANGO • JONEGUENETXEA

Kimetz Lopez de Etxezarretak 13,7ko nota atera du USEn, EAEko onena. Poz-pozik dago lorturiko emaitzagaz eta ez da gutxiagorako. Notak behintzat ez du baldintzatuko unibertsitatean aukeratzeko duen gradua. Ibilbide akademikoan aro berri baten aurrean dago, baina oraingoz udaz gozatzea du buruan.

Izan duzu aukerarik hain emaitza ona ospatzeko?

Gurasoekin afaltzera joan nintzen, baina ez dut astirik izan gehiago ospatzeko.

Itxaroten zenuen hain emaitza ona lortzea?

Ez. Azterketa batzuetatik sentsazio nahasiagaz irten nintzen, ez zutelako galdetu gehien ikasi nuena edo ariketa batean deskolokatu egin nintzelako.

Zein izan zen azterketarik gaxena?

Ekonomiari buruzko ariketa batzuek harritu egin ninduten, baina ondo egin nituen. Filosofian, esate baterako, Platon eta Kant jorratu behar izan genituen. Platonen gaia banekien gutxi gorabehera, baina ez zen gehien ikasi nuena. Kant-en gaia alde batera

Azterketa batzuetatik sentsazio nahasiagaz irten nintzen, ez zutelako galdetu gehien ikasi nuena edo ariketa batean deskolokatu egin nintzelako

utzi eta ez nuen ikasi. Baina azkenean ondo irten zitzaidan. Platoni buruz pentsatzen nuen baino gehiago nekien, itxura batean.

Zeintzuk ikasgai izan dituzu gustukoak?

Gaztelania eta literatura. Ekonomia eta Enpresa Administrazioa ere bai.

Zure ibilbide akademikoaren zati bat atzean utzi eta unibertsitateara begira zaude. Zeintzuk aukera dituzu esku artean?

Hausnarketa prozesu batean nago oraindino eta ez dakit ziur zein gradu aukeratu. Buruan dudana ea benetan gura dudana ikusi behar dut, ala kanpoko eraginagaitik dudana buruan.

Mundu guztiak esaten dit nire udarik onena izango dela. Mentalitate horregaz nabil planak egiten. Oraingoz, musika jaialdi batera noa

Baina zerrenda horretan izango dituzu aukera batzuk.

Komunikazioaren arloan, publizitatea, kazetaritza edo marketina izan daitezke. Ekonomia arloan, ADE ere izan daiteke.

Baduzu penarik institutuko ikasketak amaitu direlako?

Institutuko urteetan oso pozik egon naiz. Neversen ikasi nuen eta han gutxi ginen, 40 bat lagun. Institutura etorri ginenean, gure mailan 200 bat lagun ginen eta mundu berri bat ezagutzeko aukera izan dugu.

Uda hau berezia izango da?

Mundu guztiak esaten dit nire udarik onena izango dela. Mentalitate horregaz nabil planak egiten. Oraingoz musika jaialdi batera noa, Arenal Sound-era, Castellora (Valentzia).

Biolina jotzen duzu. Hori ere ez da musika tresnarik errazena.

Bartolome Ertzilla Musika Eskolan kontserbatorioko ibilbidea amaitu berri dut, Eunat Zarrabeitia irakasleagaz.

Saskibaloiko entrenatzailea ere bazara. Zer esan dizute taldeko umeek?

Entrenamenduak amaitu dira dagoeneko eta ez naiz egon eurekin. LH3. mailako umeak dira. Baina gurasoek idatzi didate, zoriontzeko.

Lau-hortza

Maite Euba
Areitioaurtena
Jubilatua



Egokitzen

Jaioberritan umetokitik kanpoko bizitzara egokitzen ikasi behar izaten dugu; arnasten, jaten, ibiltzen, berba egiten ... Gurasoak idoloak.

Eskola garaia bigarren egokitzen. Ez da makala izaten. NI eta nire ingurutik ZU eta GU esparrua ere badela ikasi beharko dugu. Gurasoak lehian maisu-maistrekin.

Nerabearoz zer esan egokitzenari dagokionez; gorputza arrotz bilakatu zaigula kargutzean -bularrak, zakila, ahotsa, granoak... Norenak ete dira? Gurasoak etsaiak.

Lana hurrengo egokitzen. Zentzudunak egiten ei gara etapa honetan. Neska edo mutil laguna aurkitu, etxea bankuari erosi, umeak izan, lan egin eta egun baten hara amaitu da! Egokitzen? Bai zera! Gurasoak akulu izatetik askoren makulu eginda ibiliko dira doako zain-tzan.

Amaitu da langile "normatibo" deritzogun etapa. Bizitzaren azken egokitzen. Adina da okerrena, ez baikara gazteak. Ados. Egokitzenak ez dira gozoak izaten eta erretiroarenak abantaila ugari ditu nire aburuz.

Azken egokitzen honetan badago ikasteko. Bai horixe! Norbere buruaz pazientzia handiago izaten esate baterako. Hainbeste urtetan lagundu gaituen gorputza mimatu albo batera utzi ez gaitzan eta luzaroko bidelagun izan dezagun. Sarritan norbere buruaz negar barik barre sano egin. Onartu oraintxe dela zu zeu zeuretzat egiteko momentu ederrena. Ez galdu aukera! Horregatik ba, beti egokitzen. Ifrentzuaren beste aldeari erreparatuta baina pizkarri deritzot nik neuk. Izango da "Aelloka" ari naizela. Denborak esango du!



DURANGO
SAN ROKE
BARRIA

FASE
BERRIA
SALGAI



Zure lehenengo etxebizitza, eskura.

2 logela garaiearekin

235.000 € -tik aurrera + BEZa

3 logela garaiearekin

300.000 € -tik aurrera + BEZa

Gazteentzako laguntza bereziak
finantza-erakunde bidez.

Erreserbatu zure hitzordua:

sukia.com

edo deitu

946 462 041

zenbakira

sukia

Zure etxean zaude Estás en tu casa